

Albert Goienetxe (1847-1900)

politikari euskaltzale ia ezezagunaren berri laburra

Kepa Altonaga Sustatxa
EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Artikulu honetan politikari euskaltzale baten bizitzaren berri laburra ematen zaigu, batez ere *Eskualduna* kazetan oinarrituta. Medikua lanbidez, Donibane Lohizuneko auzapez bilakatu zen, Iparraldeko elite lokalaren artean arrunta den bezala, Errepublikari aurkako eta Euskal Herri zuriaren aldeko diskurtso ideologiko eta ekintza politiko nabarmenak aurrera eramanez. Auzapez gisa foralismo euskaltzalearen gailurtzat jo dezakegu, Hegoaldearen eta Iparraldearen artean politika, ideologia eta kultura mailan zeuden loturak haren jardunean garbi azaleratzen direlarik.

GAKO-HITZAK: Donibane Lohizune · Xuri-gorriak · Zientzia-idazle

In this paper we want to present some new data about doctor Albert Goienetxe, mainly gleaned from *Eskualduna* weekly. Doctor Goienetxe was the mayor of Saint-Jean-de-Luz for twelve years and, as it was typical at the time between the local elite, he carried out a strong fight against the *red* Republic, but, at the same time, he worked hard for a *white* Basque Country. In fact, as a mayor he became the leader of the foralism defenders, and he made the political, cultural and ideological connections between the North and the South of the Basque Country.

KEY WORDS: Saint-Jean-de-Luz · Xuri-gorriak · Science writer

Oinarrizko ohar biografikoak¹

Harrigarria da noraino gutxi ezagutzen den bizi zelarik hain ospe zabala eta garrantzi handia eduki zuen gizona; izan ere, Albert Goienetxe jaun medikuak lehen mailako jardunbidea eduki zuen, ikusiko dugunez, XIX. mendeko azken urteetako Ipar Euskal Herrian. Hala izanik ere, kasurako Auñamendi Entziklopedian² ez duzu dozena bat lerro aurkituko haren bizitzaz, nahiz eta argazkiak pertsonaia aristokratiko bat erakutsi (ikus 1. irudia), paparra kondekorazioz betea. Izatez, iturri bibliografiko horrek eskainitako argibideen artean ez dago sikiera, ez jaiotza- ez heriotza-urterik.

Ezinbesteko datu horiek eta beste gutxi batzuk Jean Haritzelharrek plazaratu zituen, Euskaltzaindiak 2000. urtean Albert Goienetxeren heriotzaren mendeurrenaren kariatara antolatu ekitaldian (Haritzelhar, 2001). Horien arabera, Gratien Albert Goienetxe jaun medikua Donibane Lohizunen jaio zen, 1847ko martxoaren 5ean, eta bertan zendu, 1900eko urtarrilaren 18an gazte-gaztea, artean 53 urte bete barik. Donibaneko alkate izendatu zuten 1888an, 41 urte zituelarik. Birritan ezkondu zen, lehenik Philomène Londaitz aihertar aberatsarekin, eta, alargunduta, Hegoaldeko Maria de los Dolores Petra Gonzalez de Zorrilla anderearekin.

Haritzelharrek dioenez, XIX. mendeko azken hamarkada oso berezia izan zen Donibane Lohizunen, sekulako gatazkak gertatu baitziren xurien eta gorrien artean. Albert Goienetxe xurien buruetarikoa zen. Arestian aipatu bezala, auzapez hautatu zuten 1888an, baina gobernuak inhabilitatu zuen 1890ean; berriro aukeratu zuten 1892an, eta atzera ere baztertu 1896an; urte berean hirugarren aldiz aukeratu zuten, eta auzapez jarraitu zuen hil arte. Nolanahi ere, guztiz aipatu beharrekoa da xuri-gorrien gatazka horietan Donibane Lohizunen auzapez bi nabarmendu zirela, bata xuria, artikulua honetara ekarri dugun Albert Goienetxe medikua, eta bestea gorria, hain zuzen Martin Guilbeau, berori ere medikua ogibidez, eta berori ere euskaltzale handia. Mendearen azken hamarkada horretan, bestalde, Donibane Lohizune euskal kulturaren gune distiratsu bihurtu zen, eta hori neurri handi batean Albert Goienetxe alkatearen ekimenari esker. Urte horietan hiru biltzar eder eta arranditsu antolatu ziren bertan, 1892an, 1894an eta 1897an, Euskal Herriko bihotzaren barruko taupadak begien bistan utzi zituztenak.

Haritzelharren artikulua labur horrek eranskin gisara badakartza halaber Albert Goienetxe medikuaren bai jaiotza-agiria eta bai heriotza-agiria ere, eta dokumentuotan irakur daiteke nortzuk izan ziren haren aita-amak, alegia, Jean-Baptiste Goyeneche eta Catherine Orasia (?) Bassergues. Ez dakigu gainerako anaia-arrebarik eduki zuenez. Nolanahi, Albert Goienetxe eta Adema-Zaldubi idazle senperetarra lehengusuak ziren, Piarres Xarriton euskaltzainak esan digunez.

1. Eskerrik beroenak Olaso Dorrea Fundazioari Lacomberen biblioteka kontsultatzeko eskuzabaltasunagatik, eta bai Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekari ere. Halaber, zorretan nago ondoko lagunekin eskaini dizkidaten era askotako laguntzengatik: Ander Altuna, Xabier Altzibar, Xipri Arbelbide, Karmele Artetxe, Janbattit Dirassar, Pruden Gartzia, Jenofa Hourcade, Nekane Intxaurtza, Jazinto Iturbe, Jurgi Kintana, Josu Landa, Txema Larrea, Ainize Madariaga, Céline Mounole Hiriart-Urruti, Maitena Soubelet eta Piarres Xarriton. Guztioi mila esker.

2. Auñamendi (1984): "Goyenette, Dr.", *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, XVI. liburukia, 493-494.



1. irudia. Albert Goienetxe (1847-1900) (Iturria: *La Vasconia*, 212, 1899).

Albert Goienetxeri buruzko beste bizpahiru datu biografiko damaizkigu Manex Hiriart-Urrutiren kazetari-lanekin Jakinek apailatu zituen liburu bietariko lehenak (Hiriart-Urruti, 1971: 221). Bada, liburu horren aurkezpenerako Manex Hiriart-Urrutiren bizitza azaltzean, Piarres Lafittek *Eskualduna* aldizkariaren hastapenetako idazleen artean kokatu zuen “Goyeneche medikua”. Hau da, Lafitteren esanean Albert Goienetxek maiz-edo kolaboratu zuen astekari xuri horrekin, dirudienez sinatu gabe izan arren. Piarres Lafitteren arabera, beraz, *Eskualduna* aldizkari idazle artekoa izan zen “lehen urtetan”, alabaina, ezin dugu ezer gehiago zehaztu, Goienetxe zerrendatuta agertzen baita beste hamaika lagunekin batera. Halandaze, ez dakigu Goienetxe idazlea noraino zaildu zen *Eskualdunako* orrialdeetan, ez zeintzuk izan ziren berak erabilitako gaiak, ez zein hizkuntzatan.

Orobat, Piarres Lafittek dioenez, Donibane Lohizuneko gizon kartsu bat izan zen *Eskualdunaren* kudeatzailea, alegia, Arnaut Poxelu. Horren aita Aiherratik kostaratu zen, Goienetxe medikuaren karroza-zain. Arnaut bera ere aihertarra zen sortzez, baina laster hartu omen zituen itsasbazterreko erak. Politikaz xuri amorratua zen. Donibaneko herriko etxean grefiergoa zeukalarik, aldi berean *Eskualdunaz* arta hartzen zuen.

Liburu berak dakar Manex Hiriart-Urrutik idatzi zuen Diharasarri apaizaren obituario luzea: bada, hor ere agertzen da Goienetxe gure medikua. Laurent Diharasarri (1848-1902) apaiz saratarra guztiz nabarmendu zen errepublikaren kontra. Besteak beste, 1893ko hauteskundeetara aurkeztu zen diputatugai. Horren inguruan ondokoa diosku obituarioak (Hiriart-Urruti, 1971: 104-105):

Apezaren sustatzailetarik bat izan zen Donibaneko auzapeza, *Goyeneche* zena. Hura ere *bat*, bere erratekekoekin, hau bezala; egungo egunean nehon nehor guti baita haren eta hunen kaskoko gizonik; batek ala bertzeak, ziren tokian, zilo bat ederra utzi baitute, nekez-nekez betetzekoa.

Ez ziren bertzenaz batere elgar iduriak; guzizki, ez elgarrekin uztartzekoak. Xede berak, osoki berak izanik ere, beldurtzeko zitaken, elgarri hurbil, ez zirela, berek nahirikan ere, hiru hilabete makurtu gabe joan ahalko. Bederen ardura ukanen zuten bitarte norbaiten beharra. Hain ziren biziak eta bakotxa bere hartan, osoak.

Ez dut erranen orotaz hein berekoak zirela ere. Batek gaizkiaren herra, bertzeak gaixtaginena. Buruz, amarruz eta askoz, biga ziren; eta bizkitartean...

Bizkitartean bazuten biek hauxet, egungo egunean bakan ikusten dena: bata ez bertzea ez ziren buru apaltzaletarik.

[...]

Dena dela, behinik behin orduan hitz gutiz egin zuten apez kartsuak eta auzapez azkar, beroak elgarrekilakoa. Hitz har, hitz-eman, berehala lehen urratsei lotu ziren, ginen, batzu bertzen ondotik, laguntzaileak.

Konturatu garenez, obituario horretan badauzkagu bi eratako datuak Goienetxeren gainean. Batetik, eskertzekoak dira damaizkigun pintzelkada psikologiko ederrak, auzapez *azkar* eta *beroaren* izaera begietarutzen digutenak, ezin modu biziagoan. Bestalde, argi uzten digu Goienetxek eduki izan zuen inplikazio politikoaren norainokoa. Izan ere, hona aldatutako pasarteok esandakoaz gain, apaiz diputatugaiak 3.779 boz bildu zituen alde eta 5351 “kontra”, baina, testu horretan irakur daitekeenez, «Donibaneko kantonamenduak eman zion esku-gain handia».

Aipatu liburu horretan, bestalde, Albert Goienetxeren obituarioa berrargitaratu zen, hain zuzen Manex Hiriart-Urrutik *Eskualduna* astekarian plazaratu zuena (Hiriart-Urruti, 1971: 85-90). Egia esateko, xehetasun biografiko oso gutxi dakartza, eta batez ere auzapezaren heriotza supituak piztutako harridura eta saminean zentratua da —«etxe guziak doluminetan ziren»—, eta bai hiletaren kontakizunean ere —«Mundua han zen, ahokian. Herri guzia...»—. Nolanahi, ez dira falta Goienetxeren azken hatsaren gaineko zenbait argibide (Hiriart-Urruti, 1971: 86):

Berrogoi-ta-hamabi urte baizik ez zituen; eta itxurala, zen baino ere gazteago emaiten zuen. Hurbilenetik ikusten zutenek zakiten bakarrik, artaren beharra bazuela; baina berak bere buruaz baino gehiago baitzuen ordean bertzeen osasunaz. Eta, erran dena, azkarraren itxura zuen.

Hortakotz ere, oro harritu ditu jaun horren hil-berriak. Bezperan oraino Bayonan izana zen, herritar laborari hanbat maite zituenen zuzenak begiratu nahiz; ez baitzuen epirik, zerbeit ongi norbeiti egiteko behin gogoan hartuz geroz, hura egin arte.

Adixkide batek, kara hitsa zuela oharturik, erran zion: ohart zadila gero, zenbeit aldi, bere buruaz ere. Eta jaun medikuak irriz ihardesten dio adixkideari: «Deus ez da hau; buruko min izpi bat; biharko sendo naiz huntarik.»

Bihar gabe hila zen! Bizkitartean Bayonatik etxerat itzuli zen; afaldu eta berant solasean egonik oherat joan, gogoia arin... azken aldikotz!

Goizean argitu gabe, hatzeman dute ohean hila; ez bertzeak ez eta, menturaz, bera ere ohartu gabe hila; ordu berean hila izan balitz bezen bero. Zer izialdura etxean, auzoetan, hiri eta herri guzian!

Euskal-Erria aldizkariak, orobat, Hiriart-Urrutik ondutako obituario horren moldapen laburtua kaleratu zuen Hegoaldean (*Eskualduna*, 1900: 82-83).

Nabarmentzekoa da, bestalde, Albert Goienetxeren ospea itsasoz harandiraino iritsi zela, eta Argentinako *La Vasconia* aldizkariak portadako argazkia eta

hasierako artikulua dedikatu zizkiola 1899ko abuztuan (ikus 1. irudia) (Jaizquibel, 1899: 382). Artikulu horretan ere nozituko ditugu arestian aipaturiko hala datu-falta nola hitz potoloak: «euskarófilo entusiasta amante de su país», «el doctor Goyeneche es en la costa francesa del Cantábrico la encarnación del vasquismo» eta abar. *La Vasconiako* artikulutik gorazarrezko beste aipu asko ekar bagenitzake ere, soilik bi aldatuko ditut hona, eta hori azpimarratzeko Albert Goienetxe jaun medikua gizon moderno eta kosmopolita izan ei zela, besteak beste. Batetik, artikuluaeren hasieran ia, ondokoa irakur daiteke:

La civilización francesa ha dado á su figura de fuerte montañés la distinción y cultura que tanto relieve dan á las voluntades varoniles, haciendo de él un hombre de mundo, atrayente y simpático, sin que ello excluya las cualidades de entereza y firme voluntad peculiares á los hijos de la Vasconia.

Eta amaierako pasartetik hurrengo azpimarratu nahi dut:

Los personajes de viso de Francia y España, políticos, escritores, artistas, representantes de la banca y de la nobleza que acuden á la playa de San Juan de Luz, tienen en el doctor Goyeneche un *cicerone* ilustrado, atento, obsequioso y altamente simpático.

Honaino, bada, eskuragarri dauden iturri bibliografikoetatik osatu dugun Albert Goienetxe jaun medikuaren portreta.

Ekintza politikoaren kronika

Albert Goienetxe medikuari buruz han eta hemen argitaratuta dauden datu guztiak bildu eta gero ere, haren gainean beste gauza asko ezagutzeko gogoz gelditzen zara, esate baterako, medikuntza non ikasi zuen, edota seme-alabarik eduki ote zuen.

Hori dela-eta, xehetasun gehiagoren bila aritu izan naiz *Eskualduna* aldizkariaren bilduma digitalizatuan. Horretarako zenbaki guztiak arakatu ditut lehenengotik hasi —1887ko martxoaren 15ekoa— eta Albert Goienetxeren heriotzara arte, batez ere “Saint-Jean-de-Luz” epigrafea aztertuz. Era horretara kontu askotxo aurkitu ditut Albert Goienetxeren irudia hobeto perfilatzen lagundu didatenak.

Nonondik hastearren, esan dezagun lehen mailako ikasketak Donibane Lohizuneko freretan egin zituela Albert Goienetxek. Horixe da behintzat, eskola libroetako ikasleei ikasturte-amaierako sarien banaketa dela-eta, 1888an alkate gisa egin zuen diskurtsoan gogoratu zuena³:

[...] je ne puis oublier que j'ai eu le bonheur d'être l'un des premiers élèves de l'Institut des Frères de St-Jean-de-Luz.

Uste izatekoa da geroago Larresoroko seminario txikitik igaroko zela, orduko denboretan ohikoa zenez, baina ezin izan dut aieru hori *Eskualduna* aldizkariaren lerroetan dokumentatu.

3. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, 63, 1888-08-03.

Hari kronologikoari jarraituz, Albert Goienetxe 1870ean Parisen zegoen, medikuntza-ikasketak egiten (Joantho, 1891), baina, urte bereko uztailean gerla franko-prusiarra piztu zen, eta, alarguntsa- seme nagusia izan arren, Metz aldera bidali zuten, anbulantzia baten zerbitzura. Prusiarrek preso hartuta, ihes egin zuen St-Privat-eko batailaren ondoren eta Parisera itzuli zen Luxenburgo eta Belgikan zehar. Orduan Nogent-eko gotorlekura destinatu zuten, baina, eratu berria zen 138. errejimentura aldatzea eskatu zuen, eta lortu ere; mediku-lagun gisara bidali zuten. Errejimentu horrekin Epinay eta Bourguet-eko gudu odoltsuetan hartu zuen parte —azken gudu horren ostetik, dirudienez, ohorezko legioaren gurutzerako proposatu zuten (Hiriart-Urruti, 1900)—. Geroago, St-Denis-eko bonbardaketa ere egokitu zitzaion. Nolanahi, *Eskualduna* astekeraren zenbaki horretan irakurri dugunez (Joantho: 1891), gerla franko-prusiarra amaitutakoan —1871ko otsailean— burutu zituen Albert Goienetxek medikuntza-ikasketak, baina ez dugu topatu data zehatzik. Behin mediku-titulua eskuratutakoan Donibane Lohizunera itzuli zen.

Ez dut daturik lortu Albert Goienetxeren hurrengo urteetako ibilbidea zehaztuko digunik. Oker ez banago, *Eskualduna* aldizkariko Goienetxeren lehen aipamena 1887. urteko azaroan agertu da, hau da, astekaria hasi eta handik zortzi hilabetera, baina ordurako Albert Goienetxe alargunduta bide zegoen, ez baita lehen ezkontzaz edota Philomène Londaitz aihertarraren heriotzari buruzko inolako oihartzunik agertzen. Izatez, topatu dugun lehen berri horretan, dagoeneko Albert Goienetxe xuri-gorrien arteko auzi baten erdian ikusiko dugu. Antza, 1887ko azaroaren hasieran katu batek ausiki zion Maria Umo atso urruñarrari; egin azterketen arabera, katuak ez zuen errabia-sintomarik⁴. Alabaina, *Républicain Bayonnais*eko korrespontsalak gertaera hori profitatu zuen Goienetxeren aurka aritzeko, gure mediku donibandarrak Maria Umo delakoa artatu ez zuela argudiatuz, eta *Eskualdunako* orrialdeetan Albert Goienetxeren erantzun-argibideak plazaratu ziren —*À Monsieur le Rédacteur du Républicain Bayonnais*—, azalduz ez zuela ezbeharraren berririk izan⁵.

Lehen kuku horretatik aurrera, ikusiko dugunez, tantaka-tantaka agerpen jarraitua du gure protagonistak; areago, agerpen hori guztiz nabarmena suertatzen da sarri askotan.

Hurrengo batean, herriko kontseiluko hauteskundeetarako kanpaina barruan ikusiko dugu 1888ko maiatzaren hasieran⁶. *Eskualdunaren* zenbaki horrek “Donibandar boz-emaileak” deritzon hauteskunde-proklama dakar, zeinak nolabaiteko programa aldarrikatzen baitu lehen zatian, eta bai hautagai xurien zerrenda zehazten ere bigarrean; “A. Goyeneche (medikua)” agertzen da hogeita hiru gizon horien artean.

Handik astebetara, hauteskundeen emaitzak eta berorien gaineko analisi politikoa dira gai nagusia aldizkarian. Donibane Lohizuneri dagokionez⁷, ondokoa azpimarratuko dugu: «Gauza bat segura da: *Donibandar boz emaileek kondenatu dute M. Guilbeau bere lagunekin*». Izan ere, datu guztiak laburbilduz-edo, aipa

4. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **25**, 1887-11-11.

5. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **26**, 1887-11-18.

6. “Donibandar boz-emaileak”, *Eskualduna*, **50**, 1888-05-04.

7. “Canton de Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **51**, 1888-05-11.

genezake Donibane Lohizunen 745 boz-emaile egon zirela inskribatuta eta, izatez, 607k bozkatu zutela; bada, Albert Goienetxek 314 boz lortu zituen, eta Martin Guilbeau mediku gorriak 282, besteak beste. Hau da, kazetariaren hitzetan, Martin Guilbeau, «le maire de St-Jean-de-Luz, le tyran légendaire, par terre». Edota, beste txoko batean dioenez:

Errepublikanoen orde hautatu dituzte gizon zuzenak, bakhezkoak, langilea lagunduko dutenak eta guziz gainetik herriaren zoriona eginen dutenak.

Biba Donibandarrak!

Biba Eskualdunak!

Beraz, xuriak nagusitu ziren 1888ko hauteskunde horietan, baina, garaipen horren meritua Albert Goienetxerena izan omen zen:

[...] disons bien haut que la plus large part du succès doit être attribuée au vaillant et énergique M. Goyeneche, qui est sur la brèche depuis tantôt dix ans...
Suum cuique!

Pasarteak dioskunez, beraz, laster izateko ziren hamar urte gure protagonista harea politikoan burukatzen zela, hau da, 1878an-edo hasiko zen. Dirudienez, bada, Donibane Lohizunera itzuli eta luze barik sartu zen xuri-gorrien arteko deman.

Aste bi geroago, 1888.eko maiatzaren 25ean *Eskualduna* astekariak Donibane Lohizuneko udal-kontseilu berriaren osaketa damaigu⁸, eta, beraz, Albert Goienetxeren izendapenaren albistea, alkate gisa. Hori dela-eta, gazte-talde batek jai alaitsua antolatu zuen; zenbait gorabeheraren ostetik azken momentuan Hendaiko musikariek hartu zuten parte, Klement Hapeten ardurapean.

Nolanahi, hilabetea igaro eta gero Paueko prefekturak anulatu egin zituen maiatzeko hauteskunde-emaizak: errepikatu egin behar ziren Donibane Lohizunen⁹. Hala ere, auzapez xuriaren eskuzabaltasunari esker errepublikarrek baime-na eduki izan zuten uztailaren 14ko eguna ospatu ahal izateko¹⁰; astekariaren esanean, Marre, Blum, Martin Guilbeau eta Gustave Lerenburu mintzatu ziren bazkalostean.

Iraileko 21eko *Eskualdunaren* zenbakian¹¹, berriro ikusiko dugu hauteskunde-proklama bat, hurrengo 23an egingo diren bozketetan donibandarrak udal-kontseilu inhabilitatuaren alde egin zezaten. Eta handik astebetera, hauteskundeon emaizak aurkituko dituzu: berriro ere xuriak nagusitu ziren, baina, oraingo honetan 110 botuko alde atereaz gorriei, hau da, maiatzean baino laurogei bat gehiago¹². Kontuak kontu, urriaren 7an berraukeratuko dute Albert Goienetxe¹³.

8. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **53**, 1888-05-25.

9. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **58**, 1888-06-29.

10. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **61**, 1888-07-20.

11. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **70**, 1888-09-21.

12. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **71**, 1888-09-28.

13. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **74**, 1888-10-19.

Bestalde, 1888ko abenduaren 14ko zenbakian irakur daitekeenez¹⁴, Albert Goienetxek Weirmey andereñoa artatu zuen, berori Ugarana ibaiko uretatik salbatu zutenean: dirudienez, burua bota zuen zubitik behera. Emakume ingeles hori Mazarin kalean bizi zen, izeba batekin. Aipagarria da urte horietan Donibane Lohizuneko biztanleriak behera egin zuela —4.458 biztanle 1876an eta 3.951 biztanle 1896an—, eta pizten ari zen turismoak ere ezin izan ziola populazioari eutsi (Laborde, 2001: 64). Donibane Lohizuneko populua guztiz errotuta zegoen inguru horretan bertan, eta izatez, 1891n erroldatutako populazioaren % 78 Pirinio Apatetako departamentuan jaiotakoa zen; areago oraindik, % 49,6 udalerrian bertan sortua zen. Konparantza baterako, urte beretsuetan, ostera, Miarritzek ikaragarriko hazkundea eduki izan zuen, eta kasurako, 1896an hiru biztanletik soilik bat zen bertakoa: 1872an hamarretik zortzi ziren Miarritzen bertan jaiotakoa (Laborde, 2001: 63). Hau da, turismoak ez zuen Donibane Lohizunen eduki Miarritzen besteko eraginik, ondo sustraituta egon arren.

Dagoeneko 1889ko urtarrilean¹⁵, Bague kaleko etxe batean giza hezurdura bat aurkitu zuten igeltseroek, sotoan lanean zihardutela; Goienetxe doktoreak aztertu zituen gorpuzkinak, eta, azaldu zuenez, gutxienetik hirurogei urte zirela ehortzitako gizon nahikoa gazte batenak ziren. Itxuraz, ezin izan zen hezurduraren jatorria argitu. Ildo beretik, martxoan¹⁶, Lahite andere trapu-biltzaile zaharrak fetu bat topatu zuen erdi-lurperatuta, eta Goienetxe doktoreak egin zituen lehen egiaztapen mediko-legalak: umekia mutiko batena zen, itxuraz zazpi hilabete ingurukoa, eta artean karenaduna; usteltzen hasita zegoelarik, bospasei egun lehenago jaioko zen.

Eskualduna astekariaren orrialdeetako haritik tiratuz jakin izan dugunez¹⁷, 1889ko apirilaren hasieran harrera handia egin zitzaion Elizaga erretore berriari. Igandearekin batera eta goizeko zortzietan abiatuta, kale nagusietan garaitza-arku bi eraiki ziren, lorez jantzita, eta urrezko letrekin idatzita *La ville de Saint-Jean-de-Luz à son pasteur* eta *Ungui ethorri* zeramatzatenak; kale-bazterretan eta leiho-balkoietan jendetza ikaragarria; hirurogei zaldunez osoturiko eskolta bat zetorren, ilara bikainetan, apaiz eta agintari-andanaren berebilen aurretik, herriko fanfarriaren doinuez alaituta; segizio luze horren ostetik, freren eta seroren eskoletako umeak, den-denak elizarantz. Elizaren atarian herriko kontseilua eta alkate jauna zain, ongietorritzko hitzak esateko, frantsesez. Goizeko bederatzi t'erdia dira eta jaia hasi besterik ez da egin, baina guk hemen ez dugu egun osoa kontatuko.

Uztailera arte ez dugu berriro ikusi Albert Goienetxeren izena *Eskualduna* astekariko orrialdetan¹⁸. Izan ere, Alexandre Larralde-Diustegi magistratuaren heriotza dela-eta Urruñako hilerrian diskurtso luze samarra egin zuen frantsesez Donibaneko alkateak, hain zuzen ere, *Eskualduna* astekarian osorik irakur daitekeena. Ez dakit noraino den esanguratsua, bezperan Miarritzen egin ziren hiletalelizkizunen ostean Léon Guichenné abokatu-buru baionarrak ere agur-hitzaldi solemnea egin zuela, baina astekari xuriak ez zuela jaso. Bide batez-edo, aipa

14. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **82**, 1888-12-14.

15. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **88**, 1889-01-25.

16. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **96**, 1889-03-22.

17. "Saint-Jean-de-Luz. Installation du curé doyen", *Eskualduna*, **98**, 1889-04-05.

18. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **111**, 1889-07-05.

dezagun, Léon Guichenné (1846-1926) delako hori Piarres Buruzain mediku euskaltzale handi eta Hazparneko alkatearen koinatua zela (Xarriton, 1985: 9), eta, halaber, departamentuko diputatu xuri irtengo zela, 1906, 1910 eta 1914ko hauteskundeetan (Arbelbide, 2007: 33). Ziur asko, diskurtso bi horien paradero desberdinak erakusten du ondoen Donibane Lohizuneko auzapezaren pisu politikoa orduko xurien artean. Nolanahi, uste dudanez horixe izan zen 1889ko Goienetxe medikuaren *Eskualduna* astekariko azken agerpena.

Dagoeneko 1890. urtean sartuta gaudelarik, urtarrilaren 31ko zenbakiak¹⁹ Paueko prefekturako ebazpen baten kopia dakar, Albert Goienetxeren suspentsioa adieraziz. Ebazpen horren sarrerako azalpen laburrak dioenez, Donibane Lohizuneko auzapezak uko egin zion Baionako suprefetak eskatutako argibideak emateari administrazio-egintza baten gainean, eta, halaberean, auzapez horrek parte hartu zuen era desegokian burututako deliberazio batean, zeinaren bidez Donibaneko udal-kontseiluak aginte prefekturaleko erabaki baten kontra protestatu baitzuen, udalerrian eskola publiko bat eraikitzeko. Zer esanik ez, astekariaren azalpen eta iruzkin suminduak datoz prefekturako ebazpenaren ostetik. Nolanahi, prefekturaren suspentsioaz gainera, otsailaren 14ko zenbakian²⁰, Frantziako Errepublikaren presidentek sinaturiko Goienetxeren errelokazioa ikusiko duzu, alegia, kargugabetzea.

Handik laster, 1890eko martxoan²¹, *Eskualduna* aldizkariak Albert Goienetxek izenpeturiko hauteskunde-proklama luzetxo eman zuen argitara frantsesez, departamentuko senatu-hautesleei zuzendurikoa. Dirudienez, ez zuen emaitza faboragarririk lortu, ez baitago segidarik astekariaren ondoko zenbakietan.

Apirilaren 18ko zenbakiak²² beste era bateko berria dakarkigu: Albert Goienetxeren ezkontza, edo zehazkiago, bigarren ezkontza, horrelakorik ez aipatu arren. “Saint-Jean-de-Luz” epigrafeko kronikak dioenez, ezkontza Baionako katedralean lotu zen aurreko asteartean, goizeko hamaiketan. Dolores Gonzalez de Zorrilla andereñoa izan zen emaztegaia. Beronen lehengusuak —Adrien Saubot Damborgez— eman zuen meza, eta Labourt katedraleko artzapezak alokuzio hunkigarria. Gero, gonbidatuen zerrenda ia amaigabea dator, hemen errepikatuko ez duguna, baina nolabaiteko *who is who* zehatza damaiguna. Orobat, kronika horri esker jakin izan ditugu Albert Goienetxeren titulu bi, alegia, Charles III.aren komendadorea eta bai Isabela Katolikoarena. Gorago aipatu dugun bezala, dirudienez 1887rako alargunduta zegoen Goienetxe, ez baitugu lehen ezkontzari buruzko inongo oihartzunik aurkitu *Eskualdunako* orrialdeetan²³.

19. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **142**, 1890-01-31.

20. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **144**, 1890-02-14.

21. “À Messieurs les Électeurs Sénatoriaux du Département des Basses-Pyrénées”, *Eskualduna*, **147**, 1890-03-07.

22. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **153**, 1890-04-18.

23. Lehen emaztea, oraintsu jakin izan dudanez, 1883ko otsailaren 7an hil zen, etxe barruko ezbehar baten ondorioz: “Mme Goyeneche, toute jeune femme, habitant St-Jean-de-Luz avec son mari, le docteur Goyeneche, renverse si malheureusement sur elle un pot de graisse, placé dans une armoire, qu’elle a été tuée sur le coup. Toutes nos sympathies à notre compatriote M. Goyeneche”. (*Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*, 1883: 45).

Maiatzean jai bat egin zioten Albert Goienetxeren ordezeko auzapez berriari, hots, musde Achille Fouquier etxeko-jaunari²⁴. Bertan dago Albert Goienetxe, alkate berriaren lagun mina baita udal-fanfarriaren ohorezko presidentea izateaz gainera. Goienetek gorazarrezko diskurtso luzea eskaini zion frantsesez, besteak beste azpimarratuz, jatorriz kanpotarra izan arren, alkate berriak euskara ikasi eta landu egin zuela —«en cultivant et parlant notre langue»—.

Azaroan aurkituko dugu berriro Goienetxe *Eskualdunako* orrialdeetan²⁵. Urtero bezala, udal-fanfarriak Santa Zezilia eguna ospatu zuen, Senpere eta Ezpeletatik txango musikala eginez, hango laborariak —«braves campagnards»— alaituz kale-jira, jota eta fandangoekin, eta itzulitakoan, afari oparo batez. Afalostean Goienetek topa xarmangarria, espiritual eta mamiduna, egin ei zuen. Horixe da 1891. urtean ikusi dudana Goienetxeren azken aipua.

Gure protagonistaren hurrengo agerpena 1892ko urtarrilaren hasieran gertatu zen²⁶. Izatez, berria Achille Fouquier alkatearen heriotza izan zen, baina, haren hiletak direla-eta kronika luzea dakar astekari xuriak, eta ahukuaren handia zehazten. Hilobian, Albert Goienetek egin zion azken agurra zenduari frantsesez, besteak beste hainbat argibide biografiko emanez, eta berriro ere azpimarratuz Donibane Lohizunen euskaldundu zela: «Devenu nôtre, jusqu'à apprendre et parler notre langue basque». Nolanahi, nik neuk oraingoan nabarmendu gura dudana da kronikak zelan aurkezten duen Goienetxe bera, hitzaldira pasatu aurretik: «notre excellent ami, le docteur Goyeneche, chef du parti conservateur de notre région». Badirudi, beraz, donibandar medikua bazela norbait orduko giro politikoan, baina, kontu bat ez dago guztiz argi nire begietarako. Alegia, aipu horretan irakurri dugun «notre région» delakoa zelan ulertu behar dugu: Donibane Lohizune eta inguruak diosku, ala, ostera, Ipar Euskal Herri osoari dagokio?

Dena dela, otsailaren amaieran²⁷ udal-kontseiluak Albert Goienetxe jaun medikua hautatu zuen, musde Fouquier ordezteko. Hortaz, hor dugu Albert Goienetxe berriro ere Donibaneko alkate. Erabakia, dirudienez, ez zen gorrien gustukoa suertatu, eta hurrengo asteko *Eskualdunaren* orrialdeetan²⁸ ondokoa irakur daiteke:

Gure errepublikanoak ez dire kontent hautu hortaz, mutur dira! Gisa (*sic*) gaizoak! Zer dute bada?

Uste zuten nahi zutena egitea, bainan badakite Murde Goyenechekin, Donibaneko *juduek* eta *framazonek* ez dutela hauzirik irabaziko. Ez behar ere!

Horra horien trichtezia, nahi eta ez, iretsi behar. Hori duk hori gauza gogorra!

Beste era bateko berria irakurri dugu apirilaren hasierako *Eskualdunan*²⁹; izan ere, Anton Abadia euskaltzale jakintsu eta mezenas handiak Goienetxe auzapezari idatzi zion, urte horretako euskal jaiak Donibane Lohizunen antolatzeko. Astekariaren arabera, artean datak zehazteke zeuden, baina, edozelan ere herriko jaien ostetik egingo ziren, hau da, ekainaren 24aren ostetik.

24. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **157**, 1890-05-16.

25. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **185**, 1890-11-28.

26. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **241**, 1892-01-08.

27. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **248**, 1892-02-26.

28. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **249**, 1892-03-04.

29. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **254**, 1892-04-08.

Aurkitu dugun Albert Goienetxeren hurrengo agerpena, 1892ko maiatzaren seiko zenbakian izan da³⁰, hain zuzen ere udal-hauteskundeen emaitzen zenbaki-dantzaren baitan, baina, inolako iruzkinik gabe. Oraingo honetan, Donibane Lohizuneko xurien zerrenda-buruak, hots, gure protagonistak 380 boz lortu zituen, eta, ostera, soilik 265 Martin Guilbeau mediku gorriak.

Handik hilabete bira, uztailaren hasieran irakurriko dugu 1892ko herriko jaiak bereziki distiranteak izan zirela, bai eguraldiaren aldetik eta bai jendetzaren aldetik³¹. Nolanahi den, Serbiako Natalia erreginaren bisitaldia da jaien kronikan azpimarratuta dagoena. Izatez, Natalia Kesko (1859-1941) errege bihurtuko zen Serbiako printze batekin esposatu zen 1875ean, eta baita dibortziatu 1888an³². Kontua da 1891n atzerriratu egin zela, eta Parisen, Londresen eta bai Bidarten ere bizi izan zela hurrengo urteetan, eta sarritxotan aurkituko dugu aipatuta *Eskualdunako* orrialdeetan. Alabaina, ez da Serbiako Natalia izango Albert Goienetxe medikuak errezibitu zuen aristokrata bakarra; izan ere, 1889an Ingalaterrako Victoria erreginari egin zion ongiatorria³³, eta beste hainbati ere hurrengo urteetan, geroago aipatuko dugunez.



2. irudia. Donibane Lohizuneko hondartza (Iturria: *La Vasconia*, 643, 1911)

Abuztuaren hasieran³⁴ Goienetxe medikua ikusiko dugu 1892an Donibane Lohizunen ospatuko ziren “Grandes Fêtes Internationales du Pays Basque” direlakoan egitarauaren presidente. Jaiak abuztuaren 21-24 tartean izateko ziren, eta

30. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **258**, 1892-05-06.

31. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **266**, 1892-07-01.

32. 2007-12-28an ikusia: “Natalia Obrenovic”, <http://fr.wikipedia.org/wiki/Nathalie_Ketchko>.

33. “Visite de Sa Majesté la reine d’Angleterre à Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **95**, 1889-03-15.

34. “Saint-Jean-de-Luz: Grandes Fêtes Internationales du Pays Basque”, *Eskualduna*, **272**, 1892-08-12.

programa horrek, besteak beste, Andoaingo dantzariak eta Zuberoako pastorala eta maskaradak zekartzan azpimarratuta. Dena dela, handik astebetetera, abuztuko 19ko zenbakian³⁵, Donibaneko ospakizunek *Eskualduna*ko lehen orrialde osoa irabazi zuten, eta izenaz bestelakotuta datoz, alegia, “Les Fêtes Basques de St-Jean-de-Luz” bilakatu dira. *Eskualduna* aldizkariak Donibane Lohizunen bildutako atzeritarrei dedikatu zien zenbakia, gogoratuz jaiak zor zitzaizkiela «à l'intelligente initiative d'une patriotique Municipalité, secundée par l'inépuisable générosité de notre éminent compatriote, M. Antoine d'Abbadie, Président de l'Académie des Sciences».

Jakina, hurrengo zenbakian jaien kronika daukagu³⁶. “Eskualdun bestak”, bertan irakur daitekeenez, “besta ederrak” izan ziren, “egiazko eskualdun bestak”. Areago, hasierako editorialak ondokoa diosku lehenengo pasarte bietan:

[...] Non da behinere agertu Donibanen baino ederkiago Eskual-herriko seme guziek ber gogoz begiratu behar dugun “Eskualduntasuna”?

Eskualduntasuna! Hitz horrek hainitz erran nahi du. Hortan sartzen dire: Erlisio-nea, familia, sor-etchea, hilen orhoitzapena, bai eta bizien artean toki bereko, eta are gehiago odol bereko jendakien elgarrekilako atchikimendua; hitz batez, gizonaren bihotza lur hunen gainean bizi huntako eta bertzeko esteka dezaketen lokharri guziak.

Halaber, editorial horretako laugarren eta bosgarren pasarteetan egin dugu topo “Zazpiak bat” lelo ospetsuarekin:

Zazpiak bat, horra zer dugun irakurtu Donibaneko Eskualdun buruzagiek beren etche aintzinetan, bai eta ere bide bazterrean, bi aldetarik hedatuak zituzten bandera ederretan. Zazpiak bat: hitz berak ziren ageri, erran badezaket, harat-hunat elgarri irriz eta agurka bezala zabilzan begitharte alegera guzietan. Zazpiak bat: ez zen han bertze solasik.

Zenbaki horretan, zer esanik ez, hainbat eta hainbat xehetasun irakurriko dituzu aurreko egunetan bizi izandakoaz, dela inguruetan kokatu ahala 5.000 lagun zeudelarik Donibane Lohizuneko elizan bedeinkaturiko “le drapeau de la fédération basque” delakoaz, dela Barkoxeko gazteriak jokatu zuen Abraham pastoral maluruski eguraldi txarrak tratatuaz, zein, euskara ikasten-edo hasi zen Serbiako Natalia erreginak ikusi Andoaingo dantzarien erakustaldiaz, eta abar. Alabaina, ez dugu Donibane Lohizuneko ospakizunen gaineko datu gehiagorik hona aldatuko, gure hari nagusitik alboratuko baikinake.

Eskualduna astekariaren iraileko lehen zenbakian ere presentzia nabaria eduki zuten Donibane Lohizuneko “eskualdun bestek”³⁷. Izatez, kronikaren muina Albert Goienetxek irakurritako hitzaldi biren testuak dira. Lehenengoak, frantsesez eta luze xamarra, Anton Abadiaren omenez ospatu zen bazkarian esandakoa biltzen du, besteak beste Abadiak sorturiko euskal jaien berrogeigarren ekitaldia zela gogoraraziz. Bigarren testua, euskaraz eta berau ere nahikoa luze, zuberotarrei egin zien “pherediku ederra” da, euskalduntasanaren ingurukoa berau.

35. “Les Fêtes Basques de Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **273**, 1892-08-19.

36. “Eskualdun Bestak”, *Eskualduna*, **274**, 1892-08-26.

37. “Les Fêtes Basques de Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **275**, 1892-09-02.

Irailaren bigarren zenbakian ere “eskualdun besten” oihartzunak agertzen dira oraindik, baina, azkenekoak, astekariak dioenez³⁸. Oraingo honetan, aurreko zenbakian aipaturiko kontu batzuk gogoratzeaz gain, *Courrier de Bayonnet* ikasleak jasotako kronika bat dakar, Hendaiaiko C. H. (= Clément Hapet?) korrespontsalak idatzitakoa. Kronika hori ere Anton Abadiari eskainitako gorazarrezko bazkariari buruzkoa da, baina hainbat xehetasun damaizkigu, aurreko zenbakian agertu ez zirenak. Esate baterako, aipatzen du Salaberrik, orduan Mauleko arrondizamenduko kontseilaria, zubereraz emandako hitzaldia, eta bai denek batera *Gernikako arbola* kantatu zutela. Oso deigarria begitandu zait kronikaren tonua gero eta suharrago bilakatuz joan zela, Hendaiaiko korrespontsalak ondoko hitz aberkoi hauekin amaitu zuelarik:

Oui, *Zazpiak bat*, tel est le rêve de notre vie, à nous, les Basques de coeur et de race, qui n'avons d'autre idée de patrie que les montagnes qui nous entourent.

[...]

Qui sait si les *Zazpiak bat* ne surgiront pas un jour avec leurs frontières naturelles, avec les frontières qu'elles tiennent de la main de Dieu?

Zazpiak bat de l'Ebre à l'Adour!

Zazpiak bat des Pyrénées à l'Océan!

[...], ce jour béni où, sur la rive droite comme sur la rive gauche de la Bidassoa, notre cher “Pays Basque” recouvrerait son autonomie et son indépendance, nos aïeux, les Ibères et les Cantabres, tressailliraient de joie dans leurs tombes et demanderaient à revenir sur la terre!

Egia esateko, ezinago harrigarri suertatu zait Ebrotik Aturrirainoko aipu hori, noiz eta 1892an! Badirudi, itxura batean, Donibane Lohizunen sortu zen giro horrek Euskal Herri osoa tindatu zuela geroago, luzaro barik. Nolanahi, *Eskualduna* astekariaren zenbaki berean badago, gainera, *Journal de St-Palais*en argitaraturiko beste kronika baten zati bat, berriro ere dioskuna bost mila lagunek lagundu zutela banderen bedeinkazioa.

Beste alde batetik, irailaren 30eko *Eskualduna* astekariaren zenbakiak “Deux livres basques” artikulua dakar, euskarazko liburu biren berri damaiguna³⁹. Biotariko lehena *Laborarier: zonbeit kontseilu berechi ongarri erremedio berriez* da, eta, besteak beste “dans une langue claire et précise” batean ondua dela dio kronikak. Bigarrena, Laurent Diharasari apaiz ospetsuaren *Giristino legea laburzki* dugu, eta izenburuak laburra dela esan arren, kronikak 165 orrialde aipatzen dizkio: Albert Goienetxerenak, oster, 16 ditu soilik!

Ildo beretik-edo, urriaren amaieran Goienetxek berak sinatzen du artikulua labur bat *Eskualduna* astekarian —*Ogientzat ongarri erremedio berriez*—, azalduz gariak zer-nolako ongarriak-eta behar dituen (Goienetxe, 1892a). Honelaxe hasten du: «Neronek egin dudanean ogia huna nola egin dudanean: Landa ongi garbi arazi dut...». Oker ez banago, hauxe da *Eskualduna* astekarian Goienetxe medikuak 1892. urtean eduki izan zuen azken agerpena.

38. “Les Fêtes Basques de Saint-Jean-de-Luz (Derniers échos)”, *Eskualduna*, 276, 1892-09-09.

39. “Deux livres basques”, *Eskualduna*, 279, 1892-09-30.

Halandaze, 1893. urtera igaroz, martxoaren amaieran egingo dugu topo berriro Goienetxe medikuarekin⁴⁰. Donibane Lohizuneko kronikak dakarrenez, Jean Dumas errientaren hiletak egin dira, eta, astekariak hitzez hitz damaigu alkateak hilerrian frantsesez egindako agurra, luze xamarra eta enkomiaстикoa.

1893ko abuztuaren 4an *Eskualduna* astekariak kritika egin zion, aurreko uztai-lean Bordeleko *La Petite Gironde* egunkarian zenbait euskaltzalek argitaraturiko deialdiari⁴¹. Antza, *Association labourdine* izeneko elkarte sortu berriak Uztaritzen antolatu behar zuen Euskal Jai bat, baina, idazkaritza-lana Martin Guilbeau mediku donibandar gorriaren esku gelditu zen, edo behintzat haren etxera *rue Sopite*, 27ra helbideratu behar ziren izen-emateak eta idazlanak (Xarriton, 1984: 284-285). Elkarte berri horrek hainbat errepublikazale eta liberal bildu zituen, hala nola Harriaga-Morroxko diputatu hazpandarra, Arturo Campion, Salaberri Mauleko notarioa, Duhart Uztaritzeko alkatea eta Haltsuet Ezpeletako alkatea. Ezaguna denez, elkarte hori, izatez, Anton Abadiaren Euskal Jaien joera gero eta erreakzionarioagoari aurre egiteko sortu zen. Uztaritzeko Euskal Jaiaren ostetik, 1894an Hazparden ospatu zuten, 1895ean Ezpeletan, 1896an Kanbon, eta 1897an Saran.

Hari kronologiko horretan aurrera goazelarik, azaroaren 17ko *Eskualdunak Semaine de Bayonne* delakoak argitaraturiko berri bat jaso zuen, aditzera emanez Goienetxe medikuak *Eskualdun kantaria* opuskulua plazaratu zuela⁴². Izatez, liburuxka horretan hainbat kanta bildu zituen mediku donibandarrak, *la grande patrie française*ren zerbitzura joandakoan euskaldun gazteek bihotzean bizirik mantentzen zirela bai *la petite patrie basquere* eta bai ere euskararen gomuta. Era horretara, halaber, hiri handietan gelditzeko tentaziotik begiratu nahi ditu.

Baionako astekarian aurkitu dugun Goienetxe medikuaren hurrengo berria izan da Santa Zezilia jaia dela-eta urtero udal-txarangak eginiko ospakizunen kronika luzea⁴³. Hauxe izan bide da 1893. urteko Goienetxe medikuaren azken agerpena.

1894. urteari dagokionez, ekainera arte ez dut topo egin mediku donibandar handiarekin *Eskualduna* astekariaren orrialdeetan⁴⁴. Hilaren 15eko zenbakian, Donibane Lohizuneko kronikan, Donostiako *Unión Vascongado*tik jasotako albistea irakur daiteke. Dirudienez, Goienetxe Donibaneko alkatea, Lerenburu Sarako alkatea eta musde Elizaga sona handiko pilotazalea Irunera joan ziren, 10.000 liberako apustua egitera Etulain eta Xilhar pilotari frantses euskaldunen alde. Espainia aldeko pilotaririk desafioa onartzeko gertu egotekotan, partida Donibane Lohizunen jokatzekoa zen, hilaren 25ean. Ez dut uste partidarik jokatu zenik, ez dut-eta haren berririk aurkitu.

1894ko uztailaren 13ko *Eskualdunak* dioenez⁴⁵, Donibane Lohizuneko udal-txak berriro deliberatu zuen euskal tradizioaren jaiak ospatzea, 1892an bezala, besteak beste hainbat bisitari erakartzen baitzituzten hango balnearioetara. Abuztuko 26-29 bitartean egitekoak ziren, eta aurreikusita zeuden pastoral bat,

40. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **305**, 1893-03-31.

41. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **323**, 1893-08-04.

42. "Nouvelles du Pays. Chansons Basques", *Eskualduna*, **338**, 1893-11-17.

43. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **339**, 1893-11-24.

44. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **368**, 1894-06-15.

45. *Eskualduna*, **372**, 1894-07-13.

maskarada bat, Gipuzkoako dantzak, nazioarteko pilota-partidak, bertsolariak, eta abar. Hurrengo abuztuaren 10ean⁴⁶, bertso jarrirentzako primak zehaztu ziren: gaia, *Eskual-herria, bere usaia eta libertate zaharrak*; ehun libera txapeldunarentzat, eta berrogeita hamar bigarrenarentzat. Idazlanak beranduenez abuztuaren 20rako behar ziren Donibaneko udaletxean.

Abuztuaren 17ko zenbakian⁴⁷, *Eskualduna* astekariak euskal jaien egitarau zehatza zekarren, tartean *Les 4 fils Aymon* pastorala Barkoxeko gazteek jokatu, eta bai antolakuntza-batzordeko kideen izenak ere: ohorezko presidentek, Natalia Serbiako erregina eta Anton Abadia; presidentea, Albert Goienetxe; presidente-ordeak, Henry Larralde-Diustegi Urruñako auzapez eta kontseilari orokorra eta Gustave Lerenburu Sarako alkatea; eta beste dozena bat kide arruntago-edo. Hurrengo astean⁴⁸, lau orrialdeko gehigarria eduki zuen *Eskualdunak*, E. Reclus, W. Humboldt, F. Michel eta J. Vinson-en testuez osatua.

Zer esanik ez, Donibaneko euskal jaiek hartu zuten 1894ko abuztuaren 31ko *Eskualdunaren* azala eta zati handi bat⁴⁹. Dirudienez, arrakasta handiz gertatu ziren, eta milaka bisitari eduki zituen herriak⁵⁰. Nolanahi, kronika osotik puntu bakar bat aukeratu dugu hona aldatzeko, alegia, pastoralari dagokiona:

Pastorala guzic ederra khausitu dute; beztituac ziren ezin gehiago polliki eta gero botz batzu badituzte airosac, garbiac eta lagunac! Bainan, egia erran behar da, luzegi, anitz luzegi khausitzen dute oroc pastoral hori. Ala bada ere, nehorc guti konprenitzen du zer erraiten duten eta yendea eneatzen da builta batetariac harat bethi yestu beren ikhusten eta ahophaldi beren entzuten.

Euskal jaietatik kanpo, Donibane Lohizuneko kronikaren arabera, Goienetxe medikuak 58 urteko Bernard Haranburu artatu zuen. Beronen gorpua kai aldean aurkitu zuten flotatzen, baina, medikuaren esanean kongestio alkoholiko batek akabatu zuen; bezperan, dirudienez, mozkor arraila ikusi zuten, eta uretara jausiko zen.

Hurrengo asteko *Eskualdunak* ere euskal jaien oihartzunak zekartzan⁵¹. Bada-go artikulu luze bat euskaldunen loria zaharrak aipatzen duena, eta geroago Anton Abadia eta Albert Goienetxe goraiatzen dituena, ohitura zaharrak begiratzeko burutu duten ahalegin eskerga dela-eta. Hain zuzen, Donibaneko alkatearen gainean diosku:

Jaun eskualdun suhar horri deus ez zaio sobera Eskual-herria ohora dezaketen gauza guzien oso begiratzeko eta gorarik agertzeko.

46. "Eskualdun Phestak Donibane Ziburun", *Eskualduna*, **376**, 1894-08-10.

47. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **377**, 1894-08-17.

48. "Supplément: Grandes Fêtes Internationales du Pays Basque", *Eskualduna*, **378**, 1894-08-24.

49. "Les fêtes de la tradition basque", *Eskualduna*, **379**, 1894-08-31.

50. Charles Bernadouk damaigu jai horien kronika luzea hainbat eta hainbat xehetasunez zipriztindua, bere *Zazpiak bat* (1895, Lasserre, Baiona, 187 orr.) liburuan. Azpimarragarria da liburu hori Goienetxe doktoreari dedikatua izatea.

51. "Eskualdun Bestak", *Eskualduna*, **380**, 1894-09-07.

Azalpen horretan ez da falta ere zazpi euskal herrien goraipamenik, ez *Gernikako arbola* kanta sustagarriarenik. Badago, bestalde, gizarte-kronika bat, zerrendatzen dizkiguna Serbiako erreginaz gainera han egondako norbait ziren guztiak, esaterako Pierre Loti idazle ezaguna. Eta badago, halaber, Donibane Lohizuneko erretorearen mintzaldia, besteak beste aipatzen zituena dantza berrien lizunkeria eta bekatua, erlijio santuaren misterioak eta zeremoniak pastoraletan trufatuak eta profanatuak, eta itsasoaz bestaldeko fede gabeko euskaldun arnegatuak.

Dirudienez, Donibaneko jaietan jendea nahikotxo adoretu zen, eta, izan ere, Anton Abadia eta Albert Goienetxeren inguruan elkarte bat abiatzeko ideia sortu zen, alegia, «une vaste association purement régionale, qui, donnant la main à nos amis de Navarre, de Guipuzcoa, d'Alava et de Biscaye, travaillerait à conserver, vives et pures, toutes ces nobles traditions euskariennes». Asmo hori iraileko 21eko *Eskualdunak* jaso arren⁵², lehenago *Semaine de Bayonne* delakoak argitaratu zuen. Horixe da 1894an Albert Goienetxek *Eskualdunan* eduki izan zuen azken aipamena.

Hortaz, 1895ean kokatu garelarik, otsaileko 15ean aurkituko dugu mediku donibandarraren lehen kukua⁵³. Izan ere, Serbiako erregearen bisita laburra eduki zuten Donibanen, eta udaletxean egin zioten ongietorria, Goienetxeren diskurtso batez. Dirudienez, lau astetarako etorri zen 19 urteko Alexandre I.a Bidartera, amaren ikustera⁵⁴. Antza, ama-seeek astebete igaro zuten Donibaneko *ville des Pins* delakoan, eta eguraldi ederra profitatuz hainbat joan-etorri egin zituzten, kasurako Irun eta Hondarribira⁵⁵. Azkenik, martxoaren 22ko zenbakiak diosku makina bat lagun bildu zela Donibaneko geltokian agur esateko erregeari⁵⁶; esker onez, Alexandre I.a erregeak St-Sava ordenako komendadore izendatu zuen Albert Goienetxe, plaka, kordel handia eta enparauekin.

Alabaina, hurrengo abuztuan berriro ikusiko dugu Alexandre I.a erregearen ize-na astekari euskaldunean⁵⁷; izan ere, hor aurreratzen digute ama-seeek irailaren batean Donibanen egingo diren yate-estropadak presidituko dituztela. Hala ere, azken orduan ezin izan ziren agertu, eta Goienetxeren kargu gelditu zen presidentzia⁵⁸. Bestalde, *Eskualdunaren* arabera⁵⁹, abisua pasatu zioten Goienetxe alkateari, esanez irailaren 7an eta bost astetarako Wladimir dukesa handia herriratu zela, eta *villa Mauresquen* ostatuko zela. Iragarri bezala, gorentasun inperiala trenez iritsi zen Donibaneko geltokira, non Goienetxek egin baitzion ongietorria⁶⁰.

Goienetxeren 1895eko azken agerpenean, abenduko erdi aldean *Eskualduna* astekariak berriro gogoratzen dizkigu «zer gudukak dituen Donibaneko herriko kontseilu churiak, zortzi urthe hautan, Errepublikaren kargudunekin: dela prefet,

52. "Nouvelles du Pays: L'Association Basque", *Eskualduna*, **382**, 1894-09-21.

53. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **401**, 1895-02-15.

54. "Bidart", *Eskualduna*, **403**, 1895-03-01.

55. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **405**, 1895-03-15.

56. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **406**, 1895-03-22.

57. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **429**, 1895-08-30.

58. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **430**, 1895-09-06.

59. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **430**, 1895-09-06.

60. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **431**, 1895-09-13.

suprefet edo horiek idurikilakoekin»⁶¹. Kontua da «duela zombait egun oraino itsuskeria batzu egin dituzte jaun horiek, *lege guzien kontra*, nahiz bentzutu gure kontseilua, eta partikulazki ororen buruzagi: Murde Goyeneche, medikua eta hauzapeza». «Joanden egun horietako zirtzilkeriak ikhustearekin, herriko gazteria elgarretara bildu da [...]. Bilkhura horren akhabantzan entzun ditugu beherachago emaiten ditugun zombait phertsu ongi hunkitu horiek, herritar gizon gazte batek eginak, gure jaun meraren ohoretan». Astekariak dakartzan zortzi ahapaldietatik hiru aldatuko ditut hona (Airea: *Iruten ari nuzu*):

- (1) Bozkario handitan, kantatzen naiz hasi,
Ohore emaiteko, gure jaun merari;
Harrotz batzu nahi dute (*bis*) herrian ezarri,
Promes ederrekilan gure buruzagi.
- (7) Behinere jaun hunek (Goyenechek) ez du egin hutsik,
Gure gidari hemen eman dugunetik
Oraino populua (*bis*) badauka eskutik,
Hortako ez dugu nahi, guk nausi harrotzik.
- (8) Segi zazu aitzina, Murde Goyeneche,
Kasurik egin gabe etsaien erranez;
Pharte hartuko dugu (*bis*) guziek zure penez,
Lagunduko zaitugu zaldiz eta hoinez.



3. irudia. Donibane Lohizuneko badia (Iturria: *La Vasconia*, 736, 1914).

Dagoeneko 1896. urtean, apirilaren hasieran *Eskualduna* astekariak Paul Blanchemain delako batek sinaturiko poema luze bat dakar, *À Monsieur Albert Goyeneche* dedikatoriarekin hasten dena⁶².

Lehenagotik horren arrastorik aurkitu ez badut ere, maiatzaren 22ko zenbakiak dioenez, aurreko astelehenean tribunalak epaia eman zuen “Goyeneche-Elissalt-Hirigoyen” delako aferan⁶³. Dirudienez, Goienetxe Donibaneko alkatea, Elizalt harakin eta Donibaneko zinegotzia, eta Hirigoien harakin eta Larresoroko alkatea auzitara eraman zituzten, zeren eta, medikuak, bahitzea agindu beharrean,

61. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **443**, 1895-12-13.

62. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **459**, 1896-04-03.

63. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **466**, 1896-05-22.

merkaturatzen utzi baitzuen tuberkulosiak jotako behi baten haragia, eta Elizalt eta Hirigoien harakinek saldu egin baitzuten. Hirurok absolbituak izan ziren, tribunalak ez zuen-eta deliturik ezagutu epaitutako egintzetan.

Goienetxeren hurrengo agerpenean, 1896ko maiatzaren 29an⁶⁴, oraingoan ere bat-batean eta lehenagoko beste inolako berririk gabe, ondokoa irakurri dugu:

Bi Donibandar gizon gaztek igorri dauzkigute segidako phertsu hauk, Murde Goyeneche berriz mera izendatu egunean ager arazi dituztenak. Ezartzen ditugu gure kazetan pentsaturik atsegin eginen dugula gure adichkideeri.

Hau da, Goienetxe berriro izendatu dute alkate. Bertsoek kontatzen dutenez, suspenditu egin zuten, baina, kazeta euskaldunean ez dut horren berririk aurkitu. Nolanahi, hona hemen azken hiru ahapaldiak:

- (10) Kanpotik behar dute egin orai chichtu,
Halere nahi dute beti gerla pichtu;
Gure jaun mera ere dute suspenditu,
Segurki zirelakoan herriko-etchean sarthu.
- (11) Bainan tronpatu dire beren kalkuletan,
Zeren gaizki zabilzan beren urhatsetan;
Bethi gezurra zuten gorriek ezpainetan
Hortako egon dira k.k...ren erditan.
- (12) Bakean bizi gira orai Donibanen,
Gidatzaile zuzenak hautatu gintuen;
Biba Goyeneche, Larrea, Petit hirugarren,
Kontseilu guziarekin nork ez du erranen.

Oker ez banago, horixe izan zen 1896. urteko azken agerpena. Alabaina, 1897ko lehen agerpena martxoaren 5eko kazetan dator⁶⁵: Donibane Lohizuneko kronikan herriko kontseilua batu zela irakur daiteke, hain zuzen ere alkatea aukeratzeko. Aho batez aukeratu zituzten, bai alkatea, Albert Goienetxe medikua, bai lehen axuanta, Dominique Larrea botikaria, eta bai bigarren axuanta, Carlos Petit abokatua. Alegia, aurreko bertsoan irakurri bezala. Dena dela, ezin izan dut zehatz-mehatz argitu zer gertatu zen.

1897ko maiatzaren zazpiko zenbakian⁶⁶, astekari euskaldunak Pariseko Etnografia Elkarteko *Tradition Nationale* buletinean argitaraturiko informazioa dakar Donibane Lohizuneko kronikan. Antza, Donibanen kongresu bat antolatzekotan zeuden, eta, ildo, horretatik, Charles Bordes komisario delegatua aritu zen Parisen euskaldunen batzorde bat eratu nahian. Kronikak zenbait bileraren berri damaigu, dela Parisen, dela Bordelen, eta bai Goienetxe alkatearen gonbit batena: eskutitz baten bidez, Albert Goienetxek Etnografia Elkarteari gonbidapena luzatu zion bere urteroko kongresua Donibanen egin zezan hurrengo abuztuan, bertako euskal jai tradizionalekin batera.

64. "Donibane-Lohitzune", *Eskualduna*, **467**, 1896-05-29.

65. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **507**, 1897-03-05.

66. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **516**, 1897-05-07.

Donibane Lohizuneko kronika hurrengo astean ere antolatzen ari den kongresuaren gainekoa da⁶⁷. Besteak beste, Etnografia Elkartearen parte-hartzea azaltzen du, eta, bestalde, ohorezko presidentziaren berri ematen digu, baita antolakuntza-batzordekideena ere. Halaber, Goienetxe alkateak eskari bat zabaltzen du erakusketarako altzariak eta lanabesak biltzeko asmoz.

Ekainaren 4ko kazetan, Donibaneko kronikan alkatearen aldarria errepikatzen da⁶⁸. Alegia, euskal jaiekin batera abuztuaren 15erako erakusketa etnografiko bat antolatuko zen, eta horretarako baliagarriak izan zitezkeen objektuak bildu nahi zituzten, hala nola antzinako altzariak, jantziak, potretak, baxerak, armariak, blasoiak, armak, bitxiak eta abar. Arbasoen bizimodua berreraiki nahi zuten: etxebizitza, ogibideak, artea eta bestelako industriak. Erakusketa Grand Casinoren aretoetan plantatzekoa zen.

Uztailaren 27ko *Eskualdunaren* zenbakiak *Troisièmes Fêtes de la Tradition Basque* direlakoen programa osoa aurreratzen du, egunik egun zehaztuz abuztuaren 15etik eta 22ra bitartean zeintzuk ekitaldi egingo diren⁶⁹. Horretaz gain, badakar ere artikulua bat luzea, Pariseko *L'Univers* egunkaritik hartua, besteak beste, tradizioaren balio intrintsekoa nabarmenduz. Nolanahi, hurrengo zenbakian Goienetxek berriro sinatzen du eskari bat, erakusketarako gauzak galdetuz⁷⁰.

1897ko abuztuaren 6ko *Eskualdunatik* Larresoroko kronika aipatu nahi dut⁷¹. Bertan batxilergoko azterketak gainditu zituzten Seminarioko ikasleen izenak daude, hamaika denetara. Izen bi ekarriko ditut hona, bata, "Pierre Etchepare, de Mendionde", hain zuzen ere Jean Etxepare medikuaren anaia, gerora apaiza izango zena, eta bestea, "René Goyeneche, de St-Jean-de-Luz (avec mention assez bien)", nor eta Albert Goienetxe medikuaren semea, laster egiaztatuko dugunez.

Abuztuaren 13ko astekarian⁷², Donibane Lohizuneko kronika hastear dauden euskal jaien ingurukoa da, itxura batean haiek girotzeko-edo: programaturiko ekitaldiei buruzko xehetasun batzuk aipatzen ditu. Hurrengo zenbakian⁷³, zer esanik ez, nabarmen zabaldu da jaiak eskainitako tokia. Astekariaren arabera arrakasta handikoak izan dira jendearen aldetik: leihoak ikusleaz gainezka, argazki-kamerak plazako alde guztietan eta *le Figaro* eta *l'Illustration*eko kazetariak oharrak eta oharrak hartzen: «l'apothéose du peuple basque-franco-espagnol paraît accomplie dans ces fêtes». Ildo horretatik, astekari euskaldunak Elizaga erretorearen alokuzioa azpimarratzen du, antza, patriotismoz eta fedez betea eta euskara ezin hobean jalgia; *Eskualdunak* laburtuta ematen du, eta, izatez, erretore berak 1894ko jaietan egin zuen predikuaren ideia nagusiak berresaten ditu. Kronikak, besteak beste, dantzarien berri dakar, erakustaldiek ohiko arrakasta izan zutela esanez, baina ez soilik egitarauan agertzen ziren Beasaingo dantzarienak, «mais encore et surtout avec ceux de Bilbao que leur curé a eu l'heureuse idée d'amener à l'impro-

67. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 517, 1897-05-14.

68. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 520, 1897-06-14.

69. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 527, 1897-07-23.

70. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 528, 1897-07-30.

71. "Larressore", *Eskualduna*, 529, 1897-08-06.

72. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 530, 1897-08-13.

73. "Les Fêtes de St-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 531, 1897-08-20.

viste. C'est une grande et belle figure basque que celle de Don Arcué (*sic*; = Ascué? = Azkue), et nous aurons l'occasion de revenir sur cette éminente personnalité basquissante». Jaien kronikatik kanpo, kazetak dioskunez, Goienetxek euskal alkateen biltzar bat antolatzeko asmoa zuen, erreboteko jokoak suspertzeko eta lehenagoko denboretan zeukan indarra har zezan.

Abuztuaren 27ko *Eskualduna* astekarian ere leku handia hartu zuten Donibaneko jaiak⁷⁴. Dioenez, hiru milatik gora ikusle pasatu ziren erakusketa-aretoetatik, eta, arrakastaren zioz, irailaren 15 arte luzatuko zuten. Dirudienez, euskal liburuaren erakusketa bat ere antolatu zen, Parisetik eta Frantziaren lau bazterretarik hurbildu jaun jakintsu handientzat. «Han zituzten bilduak, jaun heier erakusteko, eskuara liburu berri eta zahar guziak; batzu ederki aphainduak, estalgi ederrez inguratuak; bertze batzu biphiek eta saguek erdi janak, edo hezeduraren ondorioz osoki mutzituak». Dena dela, hitzaldien egitaraua ez omen zen bete: «mintzatu behar zirenetarik erdiak bederen gelditu dire mintzatu gabe, ororentzat egunak laburregi zirelako». Kronikagileak, bestalde, ponentziekin liburu bat osatzeko asmoa dagoela aurreratu zigun: «Badugu uste, bai mintzatu direnen, bai eta mintzatu beharrak ichilik egon diren guzien solasak elgarretarat bildurik agertuko direla sarrichago liburu eder batean». Izatez, iragarritako liburu hori 1899. urtean argitaratu zen azkenean, eta oraintsu berrargitaratu da (Askoren artean, 1899). Oso liburu mardula da eta nahi beste argibide dakar egun horietako giro eta ekitaldiez.

Eskualduna astekariaren hurrengo hiru zenbakietan G. Berdekok Donibaneko erakusketaren iruzkin xehea argitaratu zuen, hiru zatitan banatuta (Berdeco, 1897a/b/c). Bestalde, irailaren 24ko zenbakian⁷⁵, Donibane Lohitzuneko kronikak Pariseko Etnografia Elkarteak jaietako hitzaldi guztiak liburu eder batean bilduta aterako dituela dio, eta, nahi izanez gero, 10 liberako harpidetza Arnaut Poxeluri bidali behar zaiola, *Librairie Basquaisera*, Gambetta kaleko bostera.

Donibaneko euskal tradizioaren jaien azken oihartzun bat dakar urriaren 8ko kazetak⁷⁶. Dirudienez, Donibaneko txarangak arrakasta bizia eduki zuen bai *Gernikako arbolarekin* eta bai Harispe marexalari hainbeste gustatzen omen zitzaien *euskal ehiztarien martxarekin*. Kronikagilearen arabera, martxa hori ahaztuta zegoen ia, baina David medikuak, bai, Ezpeletako alkateak, berpiztu egin zuen. Izan ere, David medikuak opari bi egin zizkion Goienetxe bere adiskideari tradizioaren jaietarako, batetik, aipatu martxa, eta bestetik, artzainek karioletan gazta egiteko erabiltzen zituzten kaikuen bilduma oparoa (bildumaren argazkia ikusteko: (Askoren artean, 1899: 47).

1897ko azken aipua ez da oraingo honetan Goienetxe medikuarentzat izango, Donibaneko euskal tradizioaren jaietaz baino; izan ere, Charles Bernadou baionarrak ehun bat orrialdeko liburua (Bernadou, 1897) eskaini ziela aipatzen du gure astekariak abenduaren 3an⁷⁷, Etnografia Elkartearen liburua ere laster datorrela gogorarazteaz gainera. Kontua da zorioneko liburuaren benetako argitalpena

74. "Eskual-Herria. Donibane-Lohitzuneko bestak", *Eskualduna*, 532, 1897-08-27.

75. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 536, 1897-09-24.

76. "La Marche des chasseurs basques", *Eskualduna*, 537, 1897-10-08.

77. "Les fêtes de la Tradition Basque", *Eskualduna*, 546, 1897-12-03.

nahikoa eta gehiago luzatu zela, eta *Eskualduna* astekariaren orrialdeetan beste lau bat aldiz aurkitu dut bazetorrela⁷⁸, azkenean 1899an plazaratu zen arte⁷⁹, gorago esan bezala.

Goienetxeren arrastoaren atzetik *Eskualduna* astekarian egin bilaketan, 1898. urteari dagokionez, martxoaren 25eko zenbakian aurkitu dugu lehen aipamena⁸⁰. Donibane Lohizuneko kronikak dioenez, Pauen izandako Pirinio Apaletako Laborarien Sindikatuaren azken bilkuran Goienetxe alkatearen oso eskutitz interesgarria irakurri zen, ganaduaren inportazioaren gainean. Hendaiako aduanatik sartzen ziren mota guztietako abelburuen urtekako kopuruak zehaztu eta gero, eta hori dela-eta ganadu frantsesaren prezioa amilduta zegoela azalduta, ganaduen inportaziorako tarifa babesgarriren bat ezartzea gomendatzen zuen. Antza, onartu egin zen proposamen hori, eta, beraz, diputatuengana bideratu. Ildo beretik, maiatzaren 20ko zenbakiak⁸¹, Goienetxek Pirinio Apaletako Laborarien Sindikatuaren presidenteari igorri eskutitza dakar, neurri babesgarriak eskatuz. Eskutitzaren sinadura azpian “Membre de la Société des Agriculteurs de France” dio, hau da, alkatea elkarte horretako kidea zela.

Bestalde, Larresoroko kronikan jakin izan dugu “René Goyeneche, de Saint-Jean-de-Luz” egon zela batxilergoko azterketak gainditu zituzten Seminarioko ikasleen artean⁸²; oraingo zerrenda horretan ez da agertu Etxepare medikuaren anaia.

Abuztuaren 19ko zenbakian, astekariak hurrengo irailaren 8rako deituriko nekazari-lehiaketaren egitaraua zekarren⁸³; arduraduna Goienetxe medikua zen, eta lehiaketa, Donibaneko kantonamenduko zortzi herrietako laborarientzat gainera, irekia zen, Sara, Senpere, Ahetze eta Arbonakoentzat. Handik hamabost egunera, nekazari-lehiaketa horren lehen kronika dakarkigu *Eskualduna*⁸⁴. Kronikak dioskunez, «lehenbiziko aldikotz azienda primak Donibaneko hirian», «herri guztietarik izan dire ekharriak kabala suerte guztietarik: baziren berehun bat buru pasaturik». «Besta eder hortan pharte hartu nahi izan du ere Nathalie Serbiako erregina ohoragarriak». Nolanahi, kronika horretan interesgarriena izan da, nire ustez, «primak eman aitzinean, Murde Goyeneche, Donibaneko mera aipatuak eta paregabeak» esan duen hitzaldi ederra, bertan osorik jasota dagoena, eta hemen bizpahiru ideia azpimarratu beharrean, ilustratiboagoa iruditu zaigu eranskin gisa ematea (ikus 1. eranskina). Azkenik, irailaren 16ko kazetan⁸⁵, lehiaketako saridunak nortzuk izan ziren agertzen da, atalez atal. Horrez gainera, kronikak azpimarratu egiten du Gustave Lerenburu errepublikazaleak ere parte hartu zuela; izan ere, antolakuntza-batzordeko presidenteordea izan zen.

78. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **555**, 1898-02-04; “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **567**, 1898-04-29; “La Tradition Basque”, *Eskualduna*, **595**, 1898-11-11, eta “La Tradition Basque”, *Eskualduna*, **622**, 1899-05-19.

79. “Le volume”, *Eskualduna*, **629**, 1899-07-07.

80. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **562**, 1898-03-25.

81. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **570**, 1898-05-20.

82. “Larressore”, *Eskualduna*, **582**, 1898-08-12.

83. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **583**, 1898-08-19.

84. “Eskual-Herria, Donibane-Lohitzun”, *Eskualduna*, **586**, 1898-09-09.

85. “Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **587**, 1898-09-16.

Bestalde, irailaren 23ko zenbakian irakurriko duzu⁸⁶, Goienetxe alkateak eskutitz bana igorri diela itsas armadako ministroari eta herri-lanetako ministroari, protesta erakutsiz egindako kudeaketa eskasarengatik. Izan ere, aurreko maiatzeko ekaitzek Arthako dikean oso kalte larriak sortu zituzten, eta dirudienez ez zen abuztuaren 19ra arte inolako aurrekonturik onartu Parisen, dikea konpontzen hasteko. Alabaina, horren ostetik ere prozesua luzatzen hasia zen buroraziaren esku, eta hori dela-eta Goienetxek gutun suharra idatzi zien, konponketa-lanak lehenbailehen abia zitezen. Ildo beretik, urriaren 28ko kronikak dioenez⁸⁷, herri-lanetako ministroak erantzun-gutuna bidali zion Donibaneko alkateari, adieraziz Pirinio Apaletako prefetari 30.000 liberako kreditu berri bat ireki diola, dikeko konponketa-lanei berrekiteko. Alabaina, kronikagilea bera arrangurutzen da, proiektuaren aurrekontua 240.000 liberakoa izanik, soilik 30.000 libera bideratu baitira. Nolanahi ere den, horixe izan da 1898. urteko Albert Goienetxeren azken aipua kazeta euskaldunaren orrialdeetan.

1899. urteko lehen agerpenean, Albert Goienetxe aurkituko dugu gerla franko-prusiarreko gertari ohien urteroko biltzarra zuzentzen, bera baitzen Donibaneko sekzioko presidentea⁸⁸. Alokuzio labur eta indartsua egin zuen frantsesez. Dirudienez, gertari ohien elkarteak hiru hilabeterik behin edukitzen zuen bilera udaletxeko areto nagusian, Goienetxeren gidaritzapean⁸⁹.

Martxoaren 24ko zenbakian jakin izan dugunez⁹⁰, Oskar II.a Suediako erregeari egin zion ongietorria herriko etxean Albert Goienetxek, eta, besteak beste, 1892, 1894 eta 1897ko euskal jaien egitarau ilustratuak erakutsi zizkion; egunbeteko bisitaldia izan zen. Alabaina, erregea martxoaren 28an itzuli zen berriro Donibanera⁹¹, errebista pasatzeko udaletxe aurrean moilaturik zegoen itsas armada suediarren eskola-ontziari, *Ellida* korbetari.

Bada, kontu aristokratikoak aipatzen segituz, apirilaren 14ko kazetak dioenez⁹², Errusiako enperadoreak St-Stanislas ordenako komendadorearen gurutzeta konferitu zion Albert Goienetxeri. Kronika hori zeharo laburra da eta ez du bestelako argibiderik eransten, salbu-eta zorionik zintzoenak komendadore berriarentzat.

Apirilaren 28ko kronikan irakur daitekeenez⁹³, gure alkatea Lockroy jaunarekin bildu zen, hau da, itsas armadako ministroarekin, Donibaneko balnearioetara etorri baitzen egonaldi baterako. Goienetxe, batetik, Donibane, Sokoa eta Ziburuko patroï eta armadoreen ordezkari gisa joanik, arrantzale-kontuez mintzatu zen ministroarekin. Bestalde, Arthako dikearen arazoa ere gogorarazi zion Lockroy jaunari, eskatuz herri-lanetako ministroari azpimarra ziezaion obra horren bai premia eta bai larria.

86. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **588**, 1898-09-23.

87. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **593**, 1898-10-28.

88. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **604**, 1899-01-13.

89. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **616**, 1899-04-07.

90. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **614**, 1899-03-24.

91. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **615**, 1899-03-31.

92. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **617**, 1899-04-14.

93. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **619**, 1899-04-28.



4. irudia. Donibane Lohizune, Ziburutik ikusita (Iturria: *La Vasconia*, 184, 1898)

Erregeak eta ministroak alboratu eta hurrengo maiatzean Urruñan aurkituko dugu Goienetxe, lauhun bat laborariren artean⁹⁴. *Eskualdunak* zehazten duenez, «Urrugnako herriko etchean, bezperak ondoan, egina izan da bilkura eder bat». Lehendabizi Donibaneko alkatea mintzatu da euskaraz eta gonbidatu ditu laborariak elkarren laguntzera eta bat egitera. Gero Rene Minier aurkeztu die, Azkaine-Argiñeneko jaun gaztea, zeinak luzernari buruzko hitzaldi ederra eman baitie euskara dotore batean. Hitzaldia laburtuta dakar astekariak.

Ekainaren 16ko kronikaren arabera, gerla-ministroak gogobetetasun-testigantza agindu zion Goienetxe medikuari, 26 urte luzez doan artatu baitzituen jendarmeriako militarrek eta euren familiak⁹⁵.

Goiago aipatu dugunez⁹⁶, astekari baionarraren esanean 1899ko uztailean plazaratu zen azkenean *La Tradition au Pays Basque* liburua, 1897ko biltzarreko hitzaldiak batzen zituena. Hala ere, hurrengo asteko zenbakia kexu agertzen zen⁹⁷, Donibanen arrakasta gehien eduki zuten hitzaldietariko bi ez baitziren liburuan sartu, alegia, Dibildots apaizaren *L'Ame basque* eta Pavia jaunaren *Marins basques*. Bestalde, zenbaki berean irakur daiteke elizan hiru ezkila berri bataiatu direla, hain zuzen Madeleine, Louise eta Vicenta izenekoak, donibandarren eskuzabaltasunaz lortuak. Besteak beste, Albert Goienetxe eta Urkixo anderea egon ziren aitabitxi-amabitxien artean; Jauffret Baionako gotzainak bataiatu zituen.

Hurrengo zenbakiko kronikak ondokoa diosku⁹⁸:

94. "Urrugne", *Eskualduna*, 621, 1899-05-12.

95. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 626, 1899-06-16.

96. "Le volume", *Eskualduna*, 629, 1899-07-07.

97. "Le volume de la Tradition Basque", *Eskualduna*, 630, 1899-07-14.

98. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 631, 1899-07-21.

Nous avons le plaisir d'annoncer à nos nombreux lecteurs et amis que M. René Goyeneche, fils de M. le docteur Goyeneche, le vaillant maire de Saint-Jean-de-Luz et M. Lucien Elissagaray, fils du sympathique médecin de Sare, viennent de subir, avec succès, les examens de P. C. N. à la Faculté des sciences de la Sorbonne.

Hortaz, erabilitako iturri bibliografikoen arabera Albert Goienetxek gutxienez seme bat eduki izan zuen, itxura osoz lehen emaztearekin.

Bestalde, hurrengo zenbakiak⁹⁹ abuztuaren 24an egingo den nekazari-lehiaketarako egitaraua dakar; Goienetxe da presidentea. Eta horren hurrengo *Eskualduna*¹⁰⁰ Thiers etorbideko hiriko terreno batzuen salmenta iragartzen du; denetara 14 lote dira, adieraziz azalera, metroko balioa eta prezio osoa.

Nekazari-lehiaketaren eguneko kronika dakar kazeta euskaldunak abuztuaren 25eko zenbakian¹⁰¹. Dioskunez, «joanden urthean baino abere hainitz gehiago presentatu da aurthen primetako. Helduden astean emanen ditugu primak irabazi dituzten jabeen izenak». Iazkoan bezala, murde Goienetxek prediku guztiz interesgarria irakurri zuen, astekariak osorik argitaratu zuena eta guk artikulu honetan eranskin gisa emango duguna (ikus 2. eranskina). Alabaina, hitzaldi oso horretatik esaldi bakan batzuk aldatuko ditut hona, nire ustez nahikoa ondo islatzen baitute Donibaneko alkate euskaltzalearen pentsaera euskararen gainean:

[...] Haurrek ikhas dezatela ongi eskoletan frantsesa mintzatzen bainan ez dezatela eskuara ahanz. Etchetan eta burhasoekin mintza ditela eskuara garbienean.

[...]

Mintza dezagun beraz garbiki gure eskuara ederra mendez-mende gure aitoren eta zaharrek maithatu duten hizkuntza.

Alegia, badirudi nahi zuela, batetik, eskolan umeek frantsesa ederto ikas zezaten —frantsesa zen, izatez, orduko hizkuntza nagusia: Goienetxek berak Donibanera hurbiltzen ziren mundu zabaleko errege-erreginekin erabiltzen zuen hizkuntza diplomatikoa frantsesa zen— baina, bestetik, euskararentzat ere zeregin guztiz garrantzitsua gorde nahi zuen, etxean eta euskaldunen artean. Esaterako, Goienetxek berak sarritan erabiltzen zuen euskara plaza-gizon aritzean, eta, halaber, euskaraz idazten zuen, eta, pentsatzekoa da irakurri ere egiten zuela. Dena den, ez du garbi uzten euskarak zein leku beharko lukeen eskolan bertan eta gainerako gunen ofizialetan.

Irailaren 1eko kazetan ere agertzen da Goienetxe auzapezaren izena, udal-tertxeko hiru ekitaldi administratibori sinadura emanaz¹⁰². Hiru astebete geroago, Gailhard izeneko armadako mediku erretiratuaren hiletan aurkituko dugu¹⁰³. Horixe izan da azken aldia, 1899. urtean *Eskualduna* astekarian Goienetxe alkatearen izena irakurri duguna.

99. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **632**, 1899-07-28.

100. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **633**, 1899-08-04.

101. "Eskual-Herria. Donibane-Lohitzun", *Eskualduna*, **636**, 1899-08-25.

102. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **637**, 1899-09-01.

103. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, **640**, 1899-09-22.

Beraz, 1900. urteko urtarrilean berriro ikusiko dugu Donibaneko gure medikua-
ren izena, 12ko zenbakian¹⁰⁴. Izan ere, egun horretako kronikak 1870-71ko Gerla-
ko Beteranoen urteroko biltzarra iragartzen zuen hurrengo iganderako, hilak 14.
Programako azken ekitaldia bazkari handi bat izango zen *Hôtel de Parisen*, gelari
ohien presidentea zen Goienetxeren zuzendaritzapean.

Eta bat-batean, 1900eko urtarrilaren 19an Goienetxeren heriotzaren berri
ertuna, blaut:

Nous avons le regret d'apprendre la mort de M. le docteur Albert Goyeneche,
maire de Saint-Jean-de-Luz, décédé hier jeudi, à sept heures du matin, foudroyé par
un embolie au coeur.

M. le docteur Goyeneche était âgé de 53 ans.

Il administrait la ville de Saint-Jean-de-Luz depuis une douzaine d'années et
l'avait élevée à un état de prospérité qu'elle ne connaissait pas depuis longtemps
avant lui. Ses concitoyens lui rendaient à cet égard toute justice et ils appréciaient
surtout l'énergie de son indépendance en face du pouvoir qui tenta vainement de
vaincre sa popularité. Si les idées conservatrices l'ont emporté pour la bonne gestion
de la ville, on le doit principalement à lui et à la cohésion qu'il sut donner aux diverses
fractions de l'opinion modérée.

M. le docteur Goyeneche exerçait sa profession avec le plus grand désinté-
ressement quand il avait affaire aux déshérités de la fortune. Nous qui avons été les
témoins des luttes continuelles de cet homme de combat avec l'administration, qui
avons admiré son indomptable vaillance, la fermeté de son caractère et les trésors de
son coeur, nous ne pouvons que nous associer plus complètement au deuil public et
à la douleur d'une famille si cruellement éprouvée¹⁰⁵.

Handik astebetera argitaratu zen *Eskualduna* astekarian Manex Hiriart-Urrutik
idatzitako obituaria (Hiriart-Urruti, 1900), Jakinek 1971n berrargitaratu eta artikulu
honen hasieran aipatu duguna (Hiriart-Urruti, 1971: 85-90). Badago zenbaki horretan
tinta gehiago Goienetxeren ohoretan. Esaterako, "Un homme" izeneko editoria-
la, non aipatzen baitira pasarte desberdinetan hala «sa popularité et son influen-
ce immenses» nola «enthousiasme en faveur des saintes causes de l'indépen-
dance et de la foi basques». Bestalde, harrigarria da hileta-elizkizunetan parte
hartu zuten pertsonen zerrendaren luzea; izen gutxi batzuk garanduko ditugu
hemen: Rene Goienetxe semea, artean medikuntza ikasten ari zena; gorago ager-
tu zaigun Klement Hapet hendaiarra, arrondizamenduko kontseilaria; Lacombe,
gerora euskaltzaina izango zena; Wentworth Webster artzain protestante euskal-
tzalea Saran 1907an hilko zena, eta Pierre Buruzain euskaltzale hazpandar han-
dia. Halaber, hilerrian hainbat agur-mintzaldi egin zitzaizkion alkate zendu berriari.
Kronikak dioenez, hizlari izan ziren: Larrea jaun axuanta, Emile Debibie bigarren
axuanta, Henri Larralde-Diustegi kontseilari orokorra, Juanxuto jaun doktorea,
Weizacker komandantea, Delamer, eta Poxelu *Nouvellisteren* izenean. Areago,
Larralde-Diustegiren mintzaldi luzea dakar *Eskualdunak*, frantsesez osorik. Era
berean, hurrengo asteko zenbakiak¹⁰⁶, eliza-ospakizunetan Elizaga erretoreak
frantsesez irakurritako hitzaldia jaso zuen, hain zuzen *Semaine de Bayonetik*.

104. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 656, 1900-01-12.

105. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 657, 1900-01-19.

106. "Saint-Jean-de-Luz", *Eskualduna*, 658, 1900-02-02.

Horren guztiorren oihartzuna Argentinaraino iritsi zen, eta, izan ere, *La Vasconia* aldizkariak argitaratu zuen *Eskualdunako* hiletaren kroniken laburpen bat, “Región vasco-francesa” atalean¹⁰⁷.

Albert Goienetxeren idazlanak

Jon Bilbaoren arabera (Bilbao, 1976-1980: 98), Goienetxe medikuak hiru idazlan argitaratu zituen. Batetik, 1885ean, *Errepublikaren izurriteak Semperen buruilaren 27^{an} Donibaneko Goyeneche Dotorak eginikako predikua* dugu, Baionako Lasserre argitaletxeak plazaratutako orrialde bateko idazkia. Badirudi aurreneko idazlan labur hori Goienetxeren karrera politikoaren hasierako aldiari dagokiola, gorago argitu denez¹⁰⁸. Moldiztegian sartu baldin bazuten, pentsatze-koa da prediku horrek jendearen arreta erakarri zuela, xuri-gorrien arteko giro liskartsu hartan.

Jon Bilbaok dakarren bigarren izenburua *Guernikako Arbola. Eskualdun kantaria* da (Baionako Lasserre argitaletxean), eta edizio bi aipatzen ditu, bata 1892koa, 70 orrialdetan 36 kanta bildu zituena, eta bestea 1894koa, 106 orrialdekoa, 56 kanta bilduta. Egin dugun *Eskualduna* astekariaren azterketan, gogoratuko duzunez, lehenengoaren aipamena aurkitu dugu, baina 1893ko azaroan¹⁰⁹. Hala ere, beste iturri baten arabera (Laborde, D., 2008) kantutegi horrek lau edizio eduki zituen 1883-1898 (*sic*) tartean, Lasserre argitaletxearen eskutik.

Halandaze, liburu nahikoa arrakastatsu suertatu zen, eta aurreko (2?, 4?) edizio horiez gainera, gutxienez beste bat eduki zuen 1914an, urte horretako ale bat baitago Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan (Goyenetze, 1914), 145 orrialde eta 85 kantaduna. Areago, beste edizio bat ere eduki zuela pentsa daiteke, Jules Moulier Oxobik 1922an *Gure Herria* aldizkariaren “Bertzen irakurgaietan” sailean argitaratu zuena aintzat hartuz gero (Moulier-Oxobi, 1922); besteak beste ondokoa diosku:

Urteak ditu Goyenetze hila dela eta harekin sobera eskualdun zahar. Zaharrak joan, arrotzak jin, gure bazterrak eta egoitzak eta jauntziak eta ohidurak, oro itzulipurdikatu dauzkigutela. Zaharrak joan eta gazteek heien urhatseri ez jarreiki, bainago hea Uztaritzen, Hazparden edo Baigorriin —herri handienez eta eskualdunenez mintzatzeko— hiru mutiko gazte badiren eskuarazko dotzenerdi bat kantu dakitenik.

Norbeiti gogoratu zako Goyenetze aipatuak moldatu liburuska, berriturik, argitaltzea eta Eskual-Herri guzian milaka hedatzea.

Hiruetan hogoi bat kantu edo gehichago [...]

Hala ere, artikulua beste une batean Oxobik «...uste dugu moldatzen ari daukuten liburutto horrek erakatsiko duela...» dio, hau da, artean liburua argitaratzeke zegoen. Ezin izan dut argitu azkenean kaleratu eta jende artean hedatu zenetz.

107. “El funeral del Dr. Goyeneche”, *La Vasconia, revista ilustrada*, **231**, 1900-03-02, 192. or.

108. “Canton de Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, **51**, 1888-05-11.

109. “Nouvelles du Pays. Chansons Basques”, *Eskualduna*, **338**, 1893-11-17.

Azkenik, Jon Bilbao (Bilbao, 1976-1980: 98) aipaturiko hirugarren idazlana *Laborarier: zonbeit kontseilu berechi ongarrri erremedio berriez* da (Goyenetze, 1892b). Guk dakigularik ez du bestelako argitalpenik eduki. Goyenetzaren liburuxka euskara erraz eta eraginkor batean dago idatzita, orduko nekazariek lehen irakurraldian uler zezaten.

Bibliografia

- Arbelbide, X. (2007): *Xuri-gorriak*, Elkar, 283 orrialde.
- Askoren artean (1899): *La tradition au Pays Basque: ethnographie, folk-lore, art populaire, histoire, hagiographie*, Aux Bureau de la Tradition Nationale, Paris, 598 orrialde, eta aurrekoaren faksimila: *La tradition au Pays Basque: ethnographie, folk-lore, art populaire, histoire, hagiographie*, Elkarlanean, Donostia, 598 orrialde (1998).
- Berdeco, G. (1897a): "L'Exposition de Saint-Jean-de-Luz, I", *Eskualduna*, **533**, [irailaren 3a].
- , (1897b): "L'Exposition de Saint-Jean-de-Luz, II", *Eskualduna*, **534**, [irailaren 10a].
- , (1897c): "L'Exposition de Saint-Jean-de-Luz, III", *Eskualduna*, **535**, [irailaren 17a].
- Bernadou, C. (1897): *Les Fêtes de la Tradition Basque à Saint-Jean-de-Luz: août & septembre 1897*, Imp. A. Lamoignon, 110 orrialde.
- Bilbao, J. (1976-1980): *Eusko bibliographia*, IV. liburukia, Garrigo-Lar, Auñamendi.
- Eskualduna (1900): "Euskaldun onragarria", *Euskal-erria, Revista Bascongada*, **XLII**, 82-83.
- Goyenetze, A. (1892a): "Ogientzat ongarrri erremedio berriez", *Eskualduna*, 283, [urriaren 28a].
- , (1892b): *Laborarier: zonbeit kontseilu berechi ongarrri erremedio berriez*, Imp. Laserre, Baiona, 16 orrialde.
- , (biltz.) (1914): *Guernikako arbola: eskualdun kantaria*, Imp. Lasserre, Baiona, 145 orrialde.
- Haritxelhar, J. (2001): "Gratien Albert Goyheneche jaun mediku eta Donibane Lohizuneko auzapez ohiaren ohoretan (1847-1900)". *Euskera*, **46/2**, 769-773 (ikus bestela: <<http://www2.euskaltzaindia.net/euskera/50719.pdf>>).
- Hiriart-Urruti, M. (1900): "Albert Goyheneche", *Eskualduna*, **658**, [urtarrilaren 26a].
- , (1971): *Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Piarres Lafitteren aitzinsolasa, Jakin, 221 orrialde (ikus bestela: <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruMintza011.htm>>).
- Jaizquibel, L. (1899): "El doctor Goyheneche", *La Vasconia*, **212**, 382.
- Joantho, M. (1891): "Dr. Goyheneche", *Eskualduna*, **190**, [urtarrilaren 2a].
- Laborde, D.: "Basque music", <<http://phonoarchive.org/Entries/S02221.htm>> 2008-04-08an bisitatua.
- Laborde, P. (2001): *Histoire du tourisme sur la Côte Basque, 1830-1930*, Atlantica, Biarritz, 310 orrialde.
- Moulier-Oxobi, J. (1922): "Bertzen irakurgaietan", *Gure Herria*, Errearoa, 360-361.
- Xarriton, P. (1984): "Guilbeau Doyarzabal, Martin", *Diccionario enciclopedico vasco. Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, XVII. liburukia, Gu-Hablista Auñamendi, 284-285 (ikus bestela: <<http://www.euskomedia.org/aunamendi?clave=57342&pest=m>>).
- , (1985): *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, CNRS, Paris, 331 orrialde.

1. eranskina (*Eskualduna*, 1898-09-09, 586. zenbakia)

Jaunak,

Lehen aldikotz emaiten dire primak Donibaneko herrian eta urthe guziez, Jainkoak nahi badu, emanak izanen dire laguntzeko bai eta kuraieztatzeko toki hautako laborari jendea.

Chede hortan egin dugu *Comice agricole* deitzen den konfardia hau zoinek izendatu bainau bere president edo buruzagitzat.

Mila esker hemen ohore hori eman dautaten adichkide guzieri. Nire egimbidearen bethetzeko eta usaiak manatzen duen bezala zombeit hitz behar dauzkizutet adiarazi.

Ez diteke bada uste izan behar holako bilkuiak egitearekin, egun bateko baxharrik bilhatu behar dela; egungo denboretan laborariak bethiko indar bat behar du ardietsi. Ez da aski ez laborarientzat ez eta nausientzat lanean artzea, aziendak bazkatzea eta edertzea; merezi du kampako nekhazaleak bere lanez eta izerdiaz baliatzea; lur lanetik ohorezki bere bizia eta familiarena atheratzea; bainan ikhusten dugu elgar aditzerik gabe, gauza zuzen horiek ez detzazkela ardiets.

Erran diteke kasik gizon baxharra gizon trichte eta tcharra dela. Hortakotz ekharria naiz laborarien estatuaz mintzatzerat.

Mundu guzia mintzo da laborariez eta laborantzaz; frango gauza eder eta on asmatuak izan dire azken denbora hautan, bai laborarien laguntzeko, bai eta gure lur zaharreri behar den hazkurria emaiteko.

Herri huntan berean, guziek badakizue, prestamuzko kacha bat altchatu duela gure jaun errotor kartsu eta ohoragarriak laborarien laguntzeko. Badakizue ere zer abantail handiak gure *syndicat agricole* deitzen den konfardien medioz onesten ditugun ongarrri edo ongailuen izaiteko. Ongarrri berri horiek gure errekolta edo uzta suerte guziak emendatu dituzte.

Baina zer balio dute obra, despendio eta lan horiek guziek orai arte bezala kampo herriek lehertzen balin-bagaituzte bihiz eta aziendez eta gehiago dena hiri handitan diren tratularien meneko bizi behar. Gure ganat zuzenki ethorri behar luken dirua badoha kampo-herritarat; guretzat baxharrik gelditzen dire gaizki saldu ondoan gure bihiak eta aziendak, zergak, phetchak eta bethi eta gehiago pagatzeko izurritea.

Elgar ez aditzeak eta kasik erran diteke ezin aditzeak galtzen du laboraria. Hiri handietan jendea errechki bil ahal diteke elgar aditzeko; laborarieri neke zaiote elgarretarik urhun bizi direlakotz ardura bilkuiak egitea. Hola beren oihua nekez adiaraz dezakete eta hortako laborarien nahi-gaberi kasu egiten da. Zer behar diteke bada egin laborari jendeen laguntzeko?

Hekien izpirituan sar arazi zoin neseario den guzientzat elgar aditzea! Deus ez da hobeagorik *batasun* bat laborarien artean onesteko kompania hau bezalako bat edo *syndicat agricole* deitzen diren konfardia hetarik herri guzietan izaitea bezala.

Behar orduetan beren aitzindari edo klaberren medioz laborariek beren errenkurak behar den lekhurat adiaraz eta entzun araz detzazkete.

Ikhusten dugu egun guzietz ez dutela balio ez izerdiak, ez lanak, ez lurretan emaiten diren onkhailuek, ez balin bagare kanpo herrietarik heldu diren bihi eta azienden kontra gerizatuak.

Nola, ez balin bagare elgarri azkarki juntatuak eta nonbrerik handienez adiaraziko ditugu gure errenkurak? Beldur bat eman araz dezakeguke geldi arazteko bihienez gainean Parisko eta bertze hiri handi batzuetako tratulariek egiten dituzten trampak. Ezin sinhetsia da bihienez kurtsa gehienetan egin dela sekulan ogi bihi bat ez erain ez bildu ez duten gizon batzuez.

Zonbeit tratulari hoietarik biltzen dire elgarretara eta batere acholarik gabe, erregu bat ogi guzien artean ez dutelarik, hamar eta ehun mila zaku bihienez gainean egiten dituzte tratuak; beren gisako kurtsa emaiten dutelarik. Gazetetan emaiten da, bertze lagun batzuk, esku-azpiz, erosten dituzte merke eta beharra heldu denezan khario saltzen. Bainan laborariak ogi nekhatu ondoan emaiten du kasik urririk, bere buruan ezin sar araziz, horren guti ogi delarik, nola horren guti egin dezaken. Ez ditu ezagutzen, urrun baitire, haren gostuz, nekherik gabe aberasten direnak. Hortako behar dire laborari konfardia azkarrak, klabertzat eman gizon fierrak, oihu gora egin dezaketanak eta erran gobernamentuari: “Laborariak, zuzen den bezala, beren lanetik nahi dute bizi, nahi dituzte beren errekoltak ogi saldu; aski hola tratulariez, zoinak bizi eta aberasten baitire hekien gostuz. Aseak gare hitz eder efetu gabekoez. Egin zatzue gure begiratzeko behar diren lege zuzen eta justuak.

“Merezi dugu errespetatuak izatea; gu gare nombrea eta gehienak; guk emaiten ditugu, behar orduetan, Frantziari, odolik ederrena, soldadorik hoberen eta azkarrenak”.

Hola mintzatuz hainitzen izenez hobeki entzunak eta hobeki begiratuak zintezkete laborariak zuzen intresetan, zeren zuzen beldurra bailukete.

Bethi errana da beldurrak mahastia zaintzen duela; kasu huni dakioen alegia eskualdun pollit bat behar dautzuet kondatu:

Behin omen zen mendi hegal batean arthalde eder bat, zoinak, otsotarik zaintzeko, baitzuten zakur handi azkar eta fier batzu. Egun batez otsoak adiarazi zioten ardieri, elgarren artean ezin adiarazizko etsaiik handienak eta bakharrak zirela chakhurrak. Chakhurrik gabe, zioten, bakean eta gochotasunean biziko zarete. Ardiek sinhetsi zituzten otsoen hitz maltzur horiek. Estekatu zituzten beren guardiano fidelak eta erreka behera botatu. Orduan deusen beldurrik gabe hurbildu ziren otsoak, ardietan ederrenak urkhatu eta jan zituzten eta bertzeak ahal zuten bezala eskapatu ziren.

Gizonek ere, nola arthaldeek behar dituzte beren gisako zakhur fierrak beren buruen eta intresen begiratzeko, entzun gabe otso maltzurren elhe enganagarriak.

Oraino gure Eskual-herri maite huntan, esker diogularik handien eta tikien artean den anaiatasun ederrari, elgar aditze eder bat izan dezakeguke gure artean eta hortarat behar dugu lanean hari gu guzien onetan.

Laphurdi alde huntan, aspaldiko denboretan, etsenplu ona goratik heldu zauku. Badugu gure artean gizon bat, handia jakitatez, handia ethorkisunez, handia fortunaz, bere bizi guzia laborarien artean iragan duena, kontseilu oneko jauna,

prestua, zuzena eta prudenta, goraki aipatua bere chehetasunaz guzientzat eta partikularzki jende beharrentzat.

Gu guzien adiskide hura hemen da gure artean, izendatzen duzue guziek nik erran gabe, gure ohorezko eta egiazko prezidenta: M. de Larralde, *Urtubiako* jauna, berhogoi eta bi urthe huntan Urrugnako mera maitatua, hogoi eta zazpi urthe huntan kontseilu jeneraleko jaun errespetagarriena.

Iduritu zauku, jaunak, laborarien besta hau ez zitekela hobekiago eta ederkiago has kantoinamenduko populuen izenean hemen guzien aitzinean ohoratuz baizik guzien adiskide handi etsenplagarri hau.

M. de Larralde, Urtubiako jauna, Donibandar eta bazter herritarrek, Urruñako zure herritar fidelek, zure ongi eginezko bizi osoa nahi dute ohoratu eta ofreitzen dautzute egun nire eskuetarik orhoitzapenezko medailla urthe hau. Hainitz urthez Jainkoak gure artean atchik zitzala gure onetan eta Donibaneko kantoinamenduko onetan.

2. eranskina (*Eskualduna*, 1899-08-25, 636. zenbakia)

Jaunak,

Bigarren aldikotz biltzen gare Donibaneko kantoinamendu huntan primen emaiteko eta atsegin handirekin ikhusten dugu gure herritar laborariek onhesten dituztela egiten ditugun entseiuak hekien onetan hunat agertzen direlarik joanden urthean baino nombre handiagoan.

Hainitz azienda gehiago ekharri duzue aurthen bai eta ere laborantzako fruitu eta gauza. Eskerrak bihurtzen dauzkizuet zeren guretzat ere atsegin bat baita ongi egina ezagutua izaitea.

Laborantzian, bertze gauza guzietan bezala mundu huntan, lanak eta entseiuak behar dute lagundua izan bereziki bi gauzez. Lehenik elgar aditzeaz. Joanden urthean mintzatu nitzauzue zombat behar liteken, herri guzietan, laborarien dretcho zuzenen eta intresen begiratzeko *syndicats agricoles* deitzen diren konfardia horietarik izan.

Aurthen mintzatuko nitzauzue bigarren gauza batez. Zombat nesesario liteken laborarientzat laborantzako eta laborantzari doazkon gauzak astapenetik eta printzipioz haurrek ikhastea. Nik bezain ongi badakizue laborantza bertze estatu guziak bezala aitzindu dela azken urthe huntan.

Non eta nola bada gure haurrek ikhasten dute laborantza? Aita-amen ganik, haukiek ongi balin badakite ongi; gaizki ikhusten badute berritz gaizki; askotan gusturik gabe, ez dakitelarik eian hobekiago egin diteken. Guk nahi ginduke laborari haurrek eta bereziki laborantzatik beren bizia atheratu behar dutenek haur-haurretik eta printzipioz eskoletan ikhas balezate laborantza.

Badire tokiak Frantzian jadanik behar hertsu horri ohartu direnak: Haurrek eskoletan ikhas dezatela izkiribatzen, irakurtzen, frantseses mintzatzen eta beren katchima. Bainan zombat bertze gauza inutil geroko deusentzat ez dituztenak ez diozkate irakhusten guziek errient egin behar balute bezala.

Zonbat abantail handiago ez liteke guzientzat eskoletan irakusten eta ikhasten baliokete nola lurra hobekienik labora eta garbi? Zoin diren hazi mota hoberenak? Nola biltzen diren eta berechten? Zoin diren gehiena emaiten dutenak? Zoin diren landare bakotcharentzat erremedio ongarri hoberenak? Nola behar diren arthatu eta atchiki? Zer tratamendu behar duten arbolek, nola chertatzen diren? Horiek guziak laborari gehienek ez dakizkiten gauzak dire.

Gero aziendez kestone zombat dire dakitenak ongi heien arthatzeko eta bazkatzeko manerarik hoberenak, heien garbitasuna atchikitze moldea? Sobera jakinak bere estatuan ez du nehor galdu.

Erran nezake bada nechken eskolez ere zombat hobeago liteken ikhasten balute eskoletan etche-laneri jarraikitzen gobernu on batekin gero laborari andre on izaiteko; egungo egunean brodatzen eta krotchetian hari baitire, gero laborantzari ihes, *fillé* edo dendari, jadanik hirietan nechkatcha aski ez balitz bezala.

Eskoletan ikhasten balute haurretik dauzkieten irakaspenak bilhaka litezke emazte zuhur eta ohoragarri beren etcheen aberastasuna egin lezaketelarik. Egun bazter guzietan pleini dire nihork ez duela bere tokietan egon nahi; bertzela liteke eta hori galdetzen dugu, eskola danik eta haur-haurretik maitha-arazi behar litekela gazteri beren segidako bizi moldea eta estatua; utzirik bazterrerat amets choroak eta urgailu ergelak.

Guk bereziki, Eskualdunek, maithatu behar dugu gure sor-lekhua nihon ez baita hobeagokorik eta ederragokorik. Atchiki gure usaieri, gure garbitasunari eta gure hitzkuntza ederrari. Gure artetik galtzen balin bada eskuara gure baithan diren gauza hoberen guziak galduko ditugu. Harek atchikitzen ditu gure artean gure fede azkar eta kontsolagarria, gure garbitasun eta leialtasuna, gure zaharren printzipio eta ikhusteko manera zuzen eta ederrak, gure arteko errespetua.

Horiek egin dute bethi danik Eskualdunen fama eta ohoria. Haurrek ikhas dezatela ongi eskoletan frantsesa mintzatzen bainan ez dezatela eskuara ahantz. Etchean eta burhasoekin mintza ditela eskuara garbienean.

Ez othe dugu gure mintzaia eder eta zaharraren atchikitze harenbertze dretchu nola kaskoinek eta biarnesek; zoin ikhusten baititugu ardura elgarretara bilduak direnean ez frantseses bainan kaskoinez elgarrekin mintzatzen.

Mintza dezagun beraz garbiki gure eskuara ederra mendez-mende gure aitorek eta zaharrek maithatu duten hizkuntza.

Orai duela zombeit egun kontseilu hori bera emaiten zioten Ezpeletan, David dotorak, bere herritar laguneri eta ez dezaket hobekiago egin chede beretan kausitza baino.

Huntan bertzetan bezala esperantza dut Donibaneko kantoinamenduko Eskualdunek emanen dutela etsemplurik hoberena.

